

Piarres Larzabal

MUGARI TIRO

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoaren irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (II)*, Piarres
Larzabal (Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1991

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=275>

MUGARI TIRO

(1959)

Jokalariak:

AITA XURI: 70 urteko misionesta bizarduna.

ANTON: 40 urte, Frantzia aldeko guarda euskalduna.

MARTZALIN: 35 urte, honen emaztea eta Ixidroren arreba.

NINIA: Anton eta Martzalin haur tipia.

POPOL: 50 urte, Frantzia aldeko guarda euskalduna.

MAYI: 22 urte, honen alaba.

BRIGADIERA: 50 urte, frantses guarda ain tzindaria, «pied-noir».

IXIDRO: 50 urte, Espainia aldeko karabinero euskalduna, Antonen koinata.

PEYO: 25 urte, honen semea eta Mayiren gizon gaia.

KABO: 50 urte, karabineroen aintzindari kanariarra.

DOLOREZ: 40 urte, Hondarribiar arrain saltzalea.

RAMONA: 38 urte, honen ahizpa.

OSTALERA: 50 urte, edozein.

OSTALERTSA: 50 urte, edozein.

FRANTZIZ: 40 urte, frantses abokata.

CASTILLO: 40 urte, espainol abokata.

PRESIDENTA: 50 urte.

SEKRETARIOA: 45 urte.

BUHAMEA: 40 urte.

BELTZAK ETA BELTZARANAK: 5, 6, 7 gizon eta emazte.

LAU MUTIL KOZKOR: 12-13 urtekoak, mugan sortuak.

BESTE GUARDA ZENBEIT

LEHEN GERTALDIA

Taula-gaina:

Erdian, muga-haga... Ezkerretik, espainol guardien etxola... Etxola horren sahetsean, izkiriatura: «España-Policia-Aduana»... Eskuinetik, frantses etxola eta izkiriaria: «France-Police-Douanes». Gibelean: Euskal etxe eta mendi batzu.

ANTON: Nun bizi gira, to, koñado?

IXIDRO: To, ene ustez, mugaren bi aldetan: hi, Frantziakoan, eta ni, hire koñadoa, Espainiakoan.

ANTON: Zer gizon da, to, zuen Kabo berria?

IXIDRO: Kanarianoa duk sortzez... Edariak errea eta, gainerat, gizon kaxkarra iduri dik... Eta, zuen brigadier berria?

ANTON: Afrikanoa duk hori ere sortzez... Berak ez zakik nungoa... Izan behar ditik kondizione guziak, horrek ere, onak salbu.

IXIDRO: Ez zaukak gure bizia, zozokeria bat? Bi koñado, biak Euskaldunak, lehen auzoak, adixkide

hoberenak, eta biak armetan, bat bertzearen zain!

ANTON: Ba, eta gainerat, bi Afrikano heien manalari.

IXIDRO: Batzuetan gogoetatua egoiten nuk, zer eno-xenkeria izigarria eta higuina den muga hau.

ANTON: Bizkitartean, badituk ere gizonak, iduriz zintzoak, muga hau, sakratua dela diotenak eta hunen kentzea aipatu orduko, kurrinkaz lotzen direnak, munduaren akabantza heldu balitzaio-te bezala.

IXIDRO: To, muga hau sakratua deitzen dutenek, ez bide ditiztek, guk bezala, hemen paratzen diren trafikkuak ezagutzen.

ANTON: Batzuk, beharbada, ez... Hanitzek aldiz, ez ote sobera ontsa? Moltsa sakratu gehiago duk ba, muga hunen beiratzearen alde, bihotz sakratu baino.

IXIDRO: Bazukek ba, hori ere!

BRIGADIERA: (*Idorki*) Atzemaiten zaitut, berritz ere, solasean ari, bertz'aldeko mugazainarekin... Ahantzia duzuia etsaiekin eleketan artzea, debekatua dautzutala gain-gainetik...

ANTON: Jaun brigadiera, hola da hemen betiko usaia!

BRIGADIERA: Hei...! Ixilik eta zangoak tink...! Jakin-azu, hola balin bazen orai artino, hemendik goiti, bertzela izanen dela... Makur-bide handiak direla, oraiko tenorean, Frantzia eta Espainiaren artean, eta beharbada, bada, gerlaren bezperan girela, muga huntan... Hei...! Hortako, egon ixilik! Begiak idek!!! Izan fermu!!! Azken abisua emaiten dautzut...! Hei...!

IXIDRO: Deubru mutur beltza, bere «hei!» eta «hei!»ekin...! Afrikako haize beroak erre zio, horri ere, kasko barrea... Ez ginikek orai bertze beharragorik... Gerla, alaintso, gure artean!

ANTON: Orai konprenitzen diat zertako Afrikano horiek igorri ditizteken hunarat... Gerla bat pitz baladi muga huntan, guk ez ginikek bekokiari, hemen, deneri su eta erre lotzeko... Horiek aldiz axola guti bailitekek hemengoez, hortako ditiztekek tokikoak urrundu, eta urrunekoak hunarat ekarri. To, Aita Xuri heldu duk... (*Hari mintzo*) Errazu, Aita Xuri, zuk ontsa ezagutzen ditutzuia Afrikanoak!

AITA XURI: Ontsa ez... Pixka bat, ba... Berrogoi eta bortz urte baditut gero Afrikan emanik... Eta, Jainkoak nahi badu, hemengo pausa egunak ere

laburtzen ari baitzauzkit, harat itzuliko naiz berritz, hango lurretan uzteko ene larru zaharra.

ANTON: Ori, harat itzuli gabe, Afrikanoen konbertitzen lotzen ahal zira, hemen berean. Baditugu hemen biga, gerla pizterat etorriak gure arterat.

AITA XURI: Ba... Noren falta da...? Nork jinarazi ditu? Aspaldiko urtetan, gureganik ez ahal dute bertzerik ikasten...! Gerla, eta beti gerla!

ANTON: Hum...! Ez dituzula saltzekotan Afrikano horiek, zuk!

AITA XURI: Egiak bere bidea behar du. Afrikanoak jende gibelatutzat dauzkagu. Bizipidez, segur ez dira gure heinean, baina gizontasunez ez ote...? Ikusten gaituztelarik gu, arrazaz haurride girenak, gure artean beti gerlan, edo, zakur eta gatu bezala bizi, mugen bi aldetan, zer nahi duzue pentsa dezaten gutaz...? Gizontasunaz, ote dute gutan erakaspén eta etsenplu hori?
(Jalitzen da)

ANTON: Ezin ukatua hori. *(Ixidrori)* Ez zakiat ohartua haizen... Alegia deusez, zimendu handiko ahopaldiak jalitzen ditik maiz apez horrek.

IXIDRO: Zer nahi duk...! Hanitz ikusi duenak, hanitz ikasi dikek... To, emaztea heldu zauk.

MARTZALIN: (*Saski bat boketarekin*) Errazu, Anton, iturrirat bainoa, tupina suan zainduko duzu. Eta, haurra ere, hor uzten dut, seaskan lo, ate aintzinean.

ANTON: Beso marratuak arras kexu ditugu... Ez dakit, muga pasatzerat utzi behar zaitudan, iturrirat joaiteko ere.

MARTZALIN: Ba balinba... Guarda frantsesaren emaztea eta espainolaren arreba izanez geroz, dretxoa ahal dut, muga huntan, harat eta hunarat ibiltzeko!

IXIDRO: Uzten ahal ditun ba bokatak bertze tenore bateko... Bihar ere argituko din berdin.

MARTZALIN: Ba, zuentzat, denak, bihar eta bihar dituk... Bainan, sarri beztitu behar baduzue eta atorra garbia ez baduzue han prest, ohearen gainean, orduan dena erasia eta sudur xixtu emaztearen kontra.

ANTON: Bon, bon...! Pasa zaite beraz, pasa... Irriskua zure gain!

IXIDRO: Ai, ai, ai...! Kasu hiri!

BRIGADIERA: (*Kexu, agertzen da*) Zer dira manera hauk, hei...? Ala, nitaz trufatzen zira...? Urrats batez urrundu orduko, ene manua ostikatuak...! Nor da, deus ageririk gabe, iragaiterat utzi duzun emazte hori, hei...!

ANTON: Jaun brigadiera, ene emaztea da!

BRIGADIERA: Zure emaztea...? Arrazoin bat gehiago ene manua errespeta dezan...! Etxekoek ez badute etsenplua emaiten, nola nahi duzu kanpokoek obedi dezaten, hei?

ANTON: Gure aduanako emazte guziak Espainiarat joaiten dira bokata zuritzerat... Hor baita gure iturria.

BRIGADIERA: Errazu hor zela orai artaino... Holako eskandalak behar du bururatu. Behar den tokirat galdea eginen dut, frantses guardek izan dezaten iturria Frantzian! (*Kabo agertzen da*)

BRIGADIERA: (*Kabori buruz*) Bekatu baita gure zikinez berez, holako nazione baten aberastea.

KABO: Ez gira zuen zikinen beharretan... Gure ura zuen lurrerat baitoa, zuentzat zuen zikinak, eta konduen gain, gureak ere! (*Brigadiera kexu jalitzen da. Kabo kexu Ixidrori*) Nor da sartzerat utzi duzun emazte hori?

IXIDRO: Kabo jauna, frantses guarda horren emaztea da, eta ber denboran, ene arreba.

KABO: (*Oihuz*) Horra zertaratzen zirezten zuek Eskualdunak...! Espainia zuen ama, ukatu nahi luketen bertze aldekoekin eskuz-esku zabilzate...! Nork daki ean emazte hori ez den ixpiongoan ari Frantziarentzat?

IXIDRO: Ez da ihesi joana... Hor da gure esku-meneko.

KABO: Preseski, eta, etsenplu gisa, nahi dut segidan gure lurretarik kasatu... (*Bertze guarda manatuz*) Guarda, errozu bokatazale emazte horri, hunarat jin dadien... (*Ixidrori*) Ikas-azu zure arreba, zure ama bera baino gehiago behar dela estimatu zure erresuma... Eta, erresuma lanjerean delarik, ikas-azu hari ere sakrifikatzen.

GUARDA: Jauna, huna emazte bokatazalea!

KABO: (*Gaixtoki*) Anderea, zer paperekin zira lur huntan?

MARTZALIN: Ez dut nik paper beharrik lur huntan izaiteko.

KABO: Arrotza hain harroki mintzo gure lurretan! Horra zer den kanpotiarreri bridak laxo uztea!

MARTZALIN: Nor da kanpotiarra hemen...? Zu ala ni...?
Ni hemengoa naiz... Zu aldiz, Afrika Kanarietako...! Zoazi, nahi baduzu, manatzerat, zure tokietarat, bainan gu, hemen, utz gaitzatzu gure gisa.

KABO: (*Oihuz*) Zer! Frantses ustela...! Hola duzuia errespetatzen gure lurra...! Erakutsiko dautzut, nik, nor den gure lurretan nausi...! Ale, preso...! Guarda, har-azu emazte hau preso!

MARTZALIN: Zer dretxoz nauzu preso altxatzen? Espainola naiz ni ere, paperez... Zu bezenbat edo gehiago ere bai.

KABO: (*Beti oihuz*) Preso...! Preso eremazu...! Dagola han, purgatzen!

IXIDRO: Jauna, ene arrebak arrazoina du. Gizona frantsesa du, bainan bera espainola da... Seme bat ere badu, hemen, karabineroetan aintzindari...

KABO: Hee? Zer derasazu?

MARTZALIN: Bai, jauna...! Zuk nahi edo ez, hori hola da... Espainian ezkondu ginen... Geroztik ene gizona, Frantziako gerla eginik, frantsestua da, bainan ni, beti espainol naiz paperetan.

GUARDA: Behar duta preso altxatu?

MARTZALIN: (*Fierki*) Ba, ezar nezazu preso... Ezar-azu orai Espainol bat, karabinero aintzindari baten ama, espainol lurretan hartu-eta, preso...! Atze-manen dut gero, nik ere, nor mintza...! Muga-zainen eginbide eta dretxoak ezagutzen ditut gero, nik ere!

KABO: (*Nardatua*) Hola balin bada, zu preso altxatze-ko dretxork ez dut... (*Boza ozenduz*) Bainan, espainol zirenaz geroz, egonen zira Espainian. Eta, zu, guarda, izanik ere anai hunentzat, gain-gainetik zainduko duzu emazte hau, ez dadien Frantziarat berritz pasa. Aditzen duzu: gain-gainetik...! Eta, orai, zoazi iturrirat.

MARTZALIN: Nahi badut, joanen naiz!

KABO: Bon beraz, zaude hor, bainan hanbat gaxto, muga trebesatzen lotzen bazira! (*Jalitzen da*)

MARTZALIN: (*Antoni*) Errazu, ez baintake orai bide lasterrez horrarat pasa zure gain uzten ditut, tupina eta haurra.

ANTON: Ez nuzu on lan txarrean ezartzen! Oxtiantxet, eneak eta asto beltxarenak entzunak ditut, nik ere, gure beltzarenganik!

MARTZALIN: (*Kexu*) Beltza edo zuria, tupinari sua egin-ozu, nahi baduzu eguerditan jan. Eta, hau-

rra ez ahal duzu bera utziko, kasurik eman gabe... Ni, iturrirat kondentua naiz! (*Jalitzen da*)

ANTON: Hau deubrukeria! Emaztea Espainian, etxe-ta haurra Frantzian, eta ni, bien artean itzatu... Nori, behin ere gertatu zaio holakorik?

AITA XURI: (*Agertuz*) Anton, zure haurra nigar eta nigar ari da bere seaskan.

ANTON: (*Kexu*) Ba, eta nik, ezin guardia utz, bereziki mementoan dugun botigarekin.

AITA XURI: Ez zaitela griña... Kontsolatuko dut ba nik aingeru ttipia.

ANTON: (*Bakarrik, kexu*) Deubruen kaxkar erreak! Horiek, Jatsu eta Haltsu bezala, biak igualtsu... Etsai behar omen diagu baitezpada, muga hunen bi aldekoek. Muga hau muntatu ziteienek, zirtzilkeria ederra muntatu ziteian... Geroztik, zenbat odol ixurtze, hau haratxago edo hunatxago izan dadiengatik! Eta, nor su piztaile...? Ho, ez hemen bereko jendea ez...! Bainan, han, hiri kapitaletan bizi diren zakur handi, batzu... Eta gu, nahi't'ez barne, hek muntatzen duten saltsetan.

AITA XURI: *(Agertzen da, haurra seaskan nigarrez)* Xo, ene aingeru ttipia, edo! Bizkitartean esnea badu tutuan, bainan ez du edan nahi.

ANTON: Oas... Barkatuko dautatzu, aita misionesta; nahi nuke haurra besotan hartu, bainan ikusten dut brigadieraren begi zorrotza, eta xahu naiz, holakorik egiten badut zerbitzu denboran.

AITA XURI: Zaude deskantsuan... Kontsolatuko ahal dugu gure ñiña. *(Besotan hartzen du eta tuta ematen dio, ele goxoekin. Lau muttikok agertuz inguratzen dute aita misionesta eta alegeraki mintzo)*

MUTTIKO BAT: Ho, aita misionesta ñiñi zain!

AITA XURI: Ba, eta lana emaiten baitaut.

MUTTIKO BI: Zure bizarrak du izitzen!

AITA XURI: Zuek, norat heldu zirezte?

MUTTIKO BAT: Kaniketan artzerat.

AITA XURI: Bon, ari kaniketan hor, haur hau eni gehiago nahasi gabe. *(Haurrak, beren usaiako hitzak baliatuz, kaniketan lotzen dira, muga marraren gainean)*

KABO: *(Kexu)* Zer dira haur tzar hauk hemen? *(Ixidro-ri)* Guarda, nolaz holakorik onartzen duzu...?

Hau dea mugaren errespetua? (*Muttiko bat besotik hartuz*) Hi, espainola ala frantsesa hiza?

MUTTIKO BAT: Ni? Eskualduna.

KABO: Eskualduna...? Eskualdunik ez duk! (*Bigarren bat besotik hartuz*) Eta hi?

IXIDRO: Kabo jauna, muttiko hori espainola da.

KABO: Bon, dagola beraz hemen.

IXIDRO: Espainola da, bainan Frantzian bizi. Horren burasoak hemendik harat desertatu ziren.

KABO: (*Bertze bat besotik hartuz*) Eta hi, zer haiz?

IXIDRO: Horrek, ama espainola du eta aita frantsesa...
Bainan Espainiakoan bizi dira.

KABO: (*Oihuz deneri*) Zakur arrazak bezain nahaste-
katuak zirezte muga huntan...! Bon... Muga hau
huts eni, eta zoazte bakotxa zuen eremueta-
rat... Eta, hunarat, ez eni gehiago ager!

AITA XURI: Kabo jauna, haur hunek badakizua zer gal-
datzen duen?

KABO: Zer?

ANTON: Amaren bularra!

KABO: Emozu beraz amaren bularra!

AITA XURI: Haur hunen ama, hor delakotz, zuen itu-
rrian eta zure baimena gabe, ezin itzul ditakela-
kotz hunenganat.

KABO: (*Sainur*) Ba, eta jakin-azu, ez daukala ene bai-mena ukanik, hemendik jalitzeko. Emazte hori, eni erran dauzkidanekin, izan balitz Japonian, gaztigutzat, kanibeta marraza batekin, gain-behera, zerria bezala idekiko zuten... Izan balitz Xinan, kanoi ukaldiaz berrehun parte puskatu-rik, igorriko zuten deubruetarat... Izan balitz Afrikan, tripatik trebes pazote bat ezar-eta, haren puntan emanen zuten iguzkitan idor-tzen... Eta, hemen, Espainian, buruzagien erres-petua ahuldua delakotz, pits ez duela uka-nen...? Holakorik ez... Sofri dezala bederen hau-rra ezin pazkatzetik!

BRIGADIERA: (*Agertuz, Kabori mintzo*) Solas horiek dute erakusten zer sabelaren jabe den gure etsaia... (*Irritzar bat dario... Kabo, brau jalitzen da*) Anton guarda, joaiten ahal zira etxerat zure haurrarekin... Popol guarda jin dadiela, zure ordain. (*Jalitzen da*)

ANTON: Eskerrak gure Jainkoar, eta zuri ere, aita misionesta... Ha, tupina ere suan dut ba...! Engoitik erre da, edo sua hil zaio. (*Jalitzen da haurrarekin*)

AITA XURI: *(Bakarrik)* Ni naiz espainola, ni frantsesa, ni afrikanoa... Ni, sortzez, gure Jainkoak eskualdun egin ninduen... Hori ezin ukatua... Paperek diote Frantziako haur naizela... Bertze eskualdun hanitz dira, paperez, espainol, amerikano, nik dakita zer. Noiz ote eskualdunak, izaten ahalko dira, paperez ere, eskualdun!

ANTON: Gauden baxotxa gure izanaren izenarekin, eta ibil gaiten denak eskuz-esku... Zer laiteke ederragorik? *(Jalitzen da)*

POPOL: *(Agertzen da... ohetik heldu, bisaiari torraka, aharrosika)* Buhu! Hau iratzartze bortitza! Lo nindoian maza bezala... Eta galdea jin... Guardia hartu behar dudala... Hau zer mozkor ondoa!

IXIDRO: Nun ibilia haiz?

POPOL: Menttan... Musean ginian desafioa... Bi guarda frantses, bi karabineroen kontra. Zafratu ditiuk...! Zer gertatzen duk hemen to? Arrunt zitala omen duk brigadier berri hau.

IXIDRO: Ba, eta gure kaboia ere berdin.

POPOL: Boo... Heziko ditiuk ba... Hastapenean denak hola dituk... Gero, ikusiz hemengo moldeak, eta

hemengo jendeak ezagutzen, gure punperat jausten dituk.

IXIDRO: Agian, to... Eta, lehenbailehen jauts daitela.

POPOL: Errak, badea hemengorik horrarat pasaturik?

IXIDRO: Auzoko buhame horietarik bat diat sumatu, urruntxagotik, gordezka. Bertze nehor guti duk, goiz huntan, muga hau trebesatu duenik. Bada-kik, dudarik gabe, gerla solasak direla gure artean?

POPOL: Gerla ba... Gerla... Zer zozokeriak jalitzen dituzten haatik! To... Gerla gose direneri, bana-kikek nik asean nola eman... Aski liuzkek denak biltzea sorropil batetararik... Eta, han, joka ditela gerlan nahi duten bezenbat. Gu egonen giniuz-kek sahetsetik behari... Gerla ba. (*Aharrosika ari da*)

IXIDRO: Hola balitz gerla, ez lukek gerlari hanitzik. Zorigaitzez, gerla muntatzaileak ez baitituk haatik gerlaz pekatzaileak!

POPOL: Gerla...! Boo! Ha, zer loeria dudan! Aho gaxto bat ere badiat! Eta zintzurra idor. (*Loa ezin du kasatu*)

IXIDRO: Eta bitzi dena hau duk... Salbu buru bero zen-baixka, jende gehienak bakearen alde dituk...

Bizkitartean, zenbaixka heiek gerla muntatuz geroz, bertze guziak ondotik jarraikitzen zaizkiotek. Beldurrez, dudarik gabe... Edo, heieri ere burua berotzen... Habil konprenitzerat hi, to...! Ha, lo ago-eta!! Bon bon, hobe! Kasko hauste gutiago dik lo dagonak.

KABO: (*Ixidrori*) Guarda! Buhame hau, hor gaindi bildurik, ekarri daukute postarat... Utz-azu muga trebesatzerat. (*Brigadiera agertu baita, hari buruz mintzo*) Horien haurra da... Doala bere familiarat. (*Jalitzen da*)

BUHAMEA: Ba, Rotschild banintz, arrakasta hoberik nuke, nik ere!

BRIGADIERA: (*Buhameri, Popol erakutsiz*) Zoazi guardiako gizonarenganat, mia zitzan. (*Jalitzen da*)

BUHAMEA: (*Lo dagon Popoli*) Hep! Ez nuzuia miatzen?

POPOL: (*Erdi lotarik*) Hee...! Bakea eni! Inbido!

BUHAMEA: Atzar zaite ba!

POPOL: Bakea gero eni...! Tira tantoa!

BUHAMEA: Alta, behar nauzu ba miatu!

POPOL: Kontrabandixtak doazila deubruetarik harat...! Hiruak iduki!

BUHAMEA: (*Besotik higituz*) Kasu emazu...! Brigadiera hor dago zuri so!

POPOL: (*Atzartzen da*) He...Brigadiera...? Jes, nun naiz ni...? Ha deubrua! (*Brau xutitzen da... Bainan galtzetako botoi bat galtzen du, eta, bortxatua da galtzen esku batez atxikitzerat*) Botoi zikina...! Eta, tenore huntan! Buhame piltzarra...! Zer duzu garreatzen?

BUHAMEA: Ez zitela kexa, jauna.

POPOL: Zer duzu hor, bizkarreko zaku hortan!

BUHAMEA: Sukre poxiño bat... Haurrentzat dut.

POPOL: (*Miatuz*) Poxiño bat ba... Badituzu hiru kilo, eta gehiago ere!

BUHAMEA: Haurrentzat, jauna, haurrentzat.

POPOL: Bon, kentzen dauzkitzut bi kilo!

BUHAMEA: Zendako biga kendu...? Eginazu baño banu bezala... Eta, oro, utz-aitzu otoi!

POPOL: Bon beraz... Ez dautzut zukrerik kentzen! Ai, ai, ai! Ba, behar dautzut kilo bat kendu.

BUHAMEA: Zerendako?

POPOL: Brigadiera so dagolakotz.

BUHAMEA: Ha...! Laster dituzu zuk ere «bai» eta «ez»ak!

POPOL: Xo... Zer duzu oraino hor?

BUHAMEA: Hor, kontserbak!

POPOL: Zonbat untzi?

BUHAMEA: Bat edo bi.

POPOL: Bai... Sei segurik kondatzen ditut. Bon, hiru kentzen daukitzut.

BUHAMEA: Bat ere, ez ahal zautzu aski... Ene familiaz urrikalduko ahal zira!

POPOL: Bon... Bat beraz... Ha, berritz ere so dago...! Biga bederen kentzerat bortxatua naiz.

BUHAMEA: Bon, bainan otoi ez ni gehiago mia!

POPOL: Ahal banu ba... Beti so baitago haatik alimalia! Sakela horiek zertaz beteak dituzu...? Bat bederen behar dautzut hustu!

BUHAMEA: Bat husten baduzu, biak hustea berdindu... Batean zapeta bat dut, eta bertzean haren laguna...

POPOL: (*Miatuz*) Ba, baduzu hor bertzerik ere... Zer da untzi huntan?

BUHAMEA: Zure onetan, untzi hori ez zazula idek.

POPOL: Zer, ene onetan...! (*Idekitzen du eta so egiten dio*) Zer duzu hau, bolbora?

BUHAMEA: Ez da bolbora... Egin-ozu usain... (*Popolek usain egiten dio eta urtzintzaka lotzen da*) Biper mina duzu hori... Errana nautzun ez untzi hori idekitzeko.

POPOL: *(Bulto batez, ez da urtzintzatik gelditzen)*
Urdekeria...! Pestekeria...! Bon... Ai, ai, ai... Eta beti so dago ba gure mutur beltza... Biperra utziko dautzut, bainan bortxatua naiz zapeta bat bederen bahitzerat.

BUHAMEA: Hasian hasi, hor-izkidatzu galtzak ere! Ene familiaz urrikalduko ahal zira... Gaixo haurra...! Lehen zapeta pareka ekartzen diot bere bestako!

POPOL: Bon, bon... Ori zapeta hau beraz... Ez duelarik bertzeak so egiten, sar-azu laster zakuan.

BUHAMEA: Orai, aski miatu ahal nauzu?

POPOL: Ba, ba... Ageria behar dautzut eman zer kentzen dautzudan. Ai, nun dut kraiona...! Galtza botigak, beti erortzen...! Ha, ez dezaket ba izkiri-ria!

BUHAMEA: Ekazu papera... Nihaurek izkiriaturko dautzut.

POPOL: Fagore bat eginen dautazu... Bon, izkiri-azu hementxet: zukrea, kilo bat eta kontserbaiak, bi untzi. *(Buhameak izkiriatur du errepikatuz)* Horra zuretzat ageriaren doblea... *(Ematen dio papera)* Ai, berriz ere beha dago...

BUHAMEA: Dagola, nahi badu... Ni banaoa.

POPOL: Ba, zoazi... Eta, milesker paperarentzat.
(*Buhamea jalitzen da*)

BRIGADIERA: (*Agertuz begi tzar batekin*) Zer dira molde horiek...? Zer duzu orai! Sekretario bat behar zure paperen betetzeko, hei! (*Karneta hartzen dio*)

POPOL: Galtzak, jaun brigadiera... Barka zadazu. Galtzak zauzkit erortzen... Botoi bat dut galdua.

BRIGADIERA: (*Idorki*) Galtzak...! Aski dituzu ontsa estekatzea bertze aldian! Bizarra ere moztekoa duzu hei...! Hoinbertze jende hemen iragaiten-eta...! Mugaz bertzaldekoak guri beha daude... Desohore bat zira zure ofizioarentzat... Desohore bat Frantziarentzat... Punimendutzat, bi egun izanen dituzu... Aditzen duzu hei...! Bi egun.

POPOL: (*Bazterrerat mintzo*) Zakurraren zera, to, hiretzat.

BRIGADIERA: (*Orroaz*) Zer erran duzu, hei...? Eta, lehenik, «zangoak tink» eni mintzatzeko... (*Popol emaiten da «au garde-à-vous»*) Ala nahi duzu gaztigu garratzago bat, hei? Nahi dut, muga huntarik pasatuko diren guziek, huntan ereman dezaten oroitzapen on bat... Nahi dut, hau trebesatu ordu konpreni dezaten, sartzen

direla libertatearen erresumarat... Jende berri, ongi ikasi, argitu batzuen erdirat... Nahi dut hemen hats berri bat sendi dezaten, bertzaldeko aire pozoinatuaren ondotik... Nahi dut... (*Karneta irakurtzen du*) Bainan, zer da ustelkeria hau...? Ongarriki zikinkeria hau nork ezarri du paper huntan, hei...? Nork?

POPOL: Karneta enea da!

BRIGADIERA: Zurea...? Baduzu kopeta....? Irakur-azu... Irakur-azu gora gora...! Miserablea, ez deusa, zu...! Irakur-azu hor izkiriatura dena!

POPOL: (*Irakurtuz*) «Aduana huntako brigadieraren asto beharrieri, goraintzi...» Buhame ustela!

BRIGADIERA: Zer diozu hortaz hei? Zure ofizioko karnetean horra beraz zer duzun onartzen. Ohorezko karneta, xuhurki beti guarda batek ibili behar lukeena, hola ixtilez duzua betetzen hei...? Oixtian eman daukitzut bi egun punimendutzat. Eta orai, izanen dituzu gainerat bertze zortzi.

POPOL: Ez da ene falta... Galtzetan botoi bat eskas nuen, eta, ez nezaken izkiria.

BRIGADIERA: Bon, eta, bertze aldian, botoiak ontsa josirik hunarat jiten ikasteko, ukanen dituzu gainerat bertze bi egun punimendu.

POPOL: *(Bazterrerat mintzo)* Tipula burua!

BRIGADIERA: Zer erran duzu, hei? Bon, zangoak tink direlarik, ixilik egun behar baita ez zirelaketz ixilik egon, ukanen dituzu gainerat bertze bi egun... Heldu baita, zortzi eta biga, eta biga, eta biga... orotarar, hamalau egun... Eta ikas hor aintzindarien errespetua... Onez ez bada, bortsaz bederen, hei...! *(Jalitzen da Popol desafiatur bezala)*

POPOL: *(Bakarrik, errabian)* Haize zirimola, galerna, bahazuza jauts ditela, holako gizon botiga, errekek beheiti joaiteko. Tripak airean, hertzeak iduzkiari, ezarriko ahal ditek norbaitek, larreki zoko batean. Ez duk ofizio hau baino higuinagorik zeruaren azpian. *(Jarririk, lotzen da botoia josten)*

IXIDRO: Kexu haiz to!

POPOL: Nor ez lukek hala izanen...! Ez duk hau bizitze bat... Batzuetan kamiunka gauzak pasatzerat uzten ditiagu... Utz pasatzerat, utz... Begiak hets... Eta biharamunean berritz, ezdeuskeria batzuentzat, zorrotz agertzeko manua... Ken, denak ken... Eta gainerat, ez deuskeria batzuentzat punitua! Eta ez guti! Sos baten

kontrabanda eta hamalau egun gaztigu... Alimale beltza!

IXIDRO: Zer nahi duk! Mugak dik hola manatzen. Kentzen dugun kontrabanda, irabazi ageria duk guretzat... Ixilik pasatzerat uzten duguna berritz, irabazi gordea, guretzat edo... bertze norbaitentzat.

POPOL: Ba, eta guk denen tapagailu behar.

IXIDRO: Beharko, ogia ez galtzekotz.

POPOL: Hau trafikua, eta gu, hortarik bizi!

AITA XURI: (*Agertuz, pipa preparatzen*) Hauxe ba, zoin zintzoki zaudezten.

IXIDRO: Ba, elgarri ginion, muga hau dena trafikudela.

AITA XURI: Zoin muga da, ez denik hala?

IXIDRO: Bizkitartean, gu ez bagine hemen, oraino trafikugehiago laitekela.

AITA XURI: Zuek ez bazinezte hor, ez laiteke mugarik, eta beraz, ez laiteke ere kontrabandarik.

POPOL: (*Irriz*) Hala duk hori ere... Haatik, laster hemen liezke hertz aldeko soldadoak gure lurretan...

AITA XURI: Ez balitz mugarik, ez litake heien zaintzeko eta ez heien trebesatzeko soldadorik.

POPOL: Ha, bazukek hori ere.

IXIDRO: Uste duzuia mundua gerlatik beira daitekela?

AITA XURI: Mundua mundu deno, beti beharko da poliza armatua, jende onen gaxtotarik zaintzeko... Bainan, mugetako gerlak ez dira, on eta gaxtoen arteko gerlak... Bainan gerlaitsuak, diruz eta herraz berotuak... jende gaxto baino on gehiago hiltzen dituzten gerlak.

DOLOREZ ETA RAMONA: (*Agertuz*) Agur jaunak. (*Oihuz*) Txitxarroa...! Zardina bizi-bizia!

HIRUEK: Agur, andereak.

DOLOREZ: Aita Xuri, beti hemen atxemaiten zaitugu...! Zer zare...? Mugazain sartua?

AITA XURI: Ez nuzu mugazain, bainan heien omoniera.

DOLOREZ: On... Izanen duzu lan hemengo arrainen sarerat biltzen.

POPOL: Ez du bere falta izanen ez bagaitu biltzen... Gaitzeko predikuak baitauzku botatzen.

AITA XURI: Bainan orduan, Jondoni Joani bezala, desertuan ari naiz predikatzen... Agian bederen, ondoko egunetako bideak ditut idekitzen. (*Jalitzen da*)

DOLOREZ: Guk ere lagunduko zaitugu, Aita Xuri. Ortzi-rale guziz ibiltzen baigare etxez-etxe arrain sal-

tzen, guri esker dute hemen hanitzek mehe egiten.

POPOL: Bai, zuek ontsasko gizentzen zirezte, guri mehe eginaraziz... Haatik, egungoan, badut uste gazitegirat beharko dituzuen itzuli zuen arrainak.

DOLOREZ: Gazitegirat...? Zertako...?

POPOL: Ez baituzue saltzeko baimenik ukanen mugaz bertzaldeko.

DOLOREZ: Ez ote...? Nahi nuke jakin nork debekaturik.

POPOL: Guk hola hartua dugu manua: nehor ez trebesatzerat uzteko... Ez gure emazteak ere. Zertako ote...? Aski diozue galdetzea gure galondun berrieri.

DOLOREZ: Zertako ez diotegu galdetuko...? Zer uste duzu. Horien beldur garela?

POPOL: Ez, ez... Ez luke balio... Muturra pixka bat xokolet kolore izanagatik, gizon goxoak dira, mintza-errexak, plazer egiterat ekarriak... Zoazte, zoazte... Frogazkitzue! (*Brigadiera agertzen da*)

DOLOREZ: (*Brigadierari*) Agur, jauna! Bi ahizpa gare... Biak Hondarribian sortuak... Hau espainola da, eta ni, frantsestua!

BRIGADIERA: (*Goratik*) Eta gero!

DOLOREZ: Gure usaia da, muga hunen bi aldetako etxetan arrain saltzen aitzeko... Zure aintzineko brigadierarekin arras ongi elgar aditzen ginuen... Gizon xarmanta zen. Pentsatzen dut zurekin ere berdin izanen dela.

BRIGADIERA: (*Hozki*) Ene aintzinekoez, nik ez dut fitsik jakin nahi... Hanbat gaxto beren eginbidea gaizki betetzen bazuten.

DOLOREZ: Ez zaitut ahantziko jauna... Bertzeak bezala, izanen dituzu, aldi guziz, txitxarro zenbeit, zuk ere!

BRIGADIERA: (*Bortizki*) Zer...! Baduzu kopeta hola ni erosi nahiz lotzeko, hei! Fuera hemendik! Ez da ene ohorea saltzeko!

DOLOREZ: (*Bizi-bizia*) Jes...! Ez baduzu ohorerik saltzeko, ez da nere falta. Nik ere badut nere ohorea zaintzeko... Familia hor dut. Ez dut nehorik kalterik ekartzen arraina salduz... Zerbitzu dut egi-ten deneri!

BRIGADIERA: (*Saminki*) Errana zautaten muga huntan ustelkeria sartua zela... Ba, hala da, eta nik uste baino barnago... Jendeak, mugaren gainean, beren etxeko sukaldean bezala ibilki... Mugazai-

nak salgailu... Nola nahi duzue erresuma bat sanoki bizi dadien, holako moldekin, hei!! Bainan, saindatuko dira urratsak hemendik aintzinat, emanen baitut nik hemen, gure erresumaren errespetua.

DOLOREZ: Bon... Nik ez baitut prediku beharrik... Igan-dekoarekin baitut aski... Nahi dut bakarrik jakinean muga trebesatzerat uzten gaituzun arrain saltzeko!

BRIGADIERA: (*Oihuz*) Ez... Ez eta ez! Hain kasko heresia duzua, hori ez oraino konprenitua ukaiteko?

RAMONA: Errazu! Eta ni, espainola bainaiz, ez ote naiz libro nere lurretarat?

BRIGADIERA: Espainola bazira, zoazi deubruetarik urrunago, eta ez gehiago itzul hunarat.

KABO: (*Agertuz*) Hemendik horrarat igorri berdurak, atxik-aitzue zuentzat!

RAMONA: (*Kabori*) To, behingoan, hire beharriak aski garbiak hintuen, sahetsetik erranen aditzeko.

BRIGADIERA: Zorigaitzez arrazoina du... Sobera aise, kanpotiarrak onartzen ditugu gure lurretan.

RAMONA: Errak to! Nor duk hemen bere lurretan?
Zuek ala gu? Zoazte, zuen iduri, mutur beltzetar-
rat, eta gun, bakea emazue hemen!

BRIGADIERA: Ixilik ez bazira egoiten, oroit zaite pre-
sondegiak zerbaitetako direla!

RAMONA: Utziko zauztegu zuen gisa... Hasteko, usain
txarregia duzue batak edo bertzeak guk zuen
ondoan irauteko... Etor Dolorez... Goazen
hemendik...

BRIGADIERA: Eta, hunarat ez gehiago ager.

RAMONA: Arrazoina duk... Ez gaituk gehiago agertuko.
Bertz'aldian zikinketariak igorriko ditiagu zuen-
ganat... Zikintsu zikiñak, zuek! *(Jalitzen dira...
Brigadiera eta kaboa ere)*

POPOL: Ha zer kazkarota pareta to!

IXIDRO: Horion erranetan, bazituan egiak ere... Muga
hau ez duk jendeen onetan, bainan bai kalte-
tan... Niagok beraz zertako xutik beiratzen
duten.

POPOL: To, hau kentzen badute, abiatzen ahal gaituk,
hi eta ni, onddoketan...

IXIDRO: Halere egiari bere bidea. Muga hau zonbaiten
onetan, bainan gehienen kaltetan.

POPOL: To, to... Jendeak heldu zauzkik. (*Agertzen dira sei presuna, afrikano jauntzietan*)... Hiru aljeriano (*aita, ama eta haur koskor bat*)... Hiru beltz (*gisa bereko*).

IXIDRO: Jes...! Nor ote dituk jende horiek? Hauxe ba, zenbat gizon mota garen bazterretan!

KABO: (*Agertzen da... Jendeen paperak ikertzen ditu*)
Guarda, utz-aizu jende hauk pasatzerat.

IXIDRO: To, hire aldi orai.

POPOL: Doazila brigadierarenganat!

BRIGADIERA: (*Agertuz*) Hep! Geldi! Ez da haizu nehor gehiago hunarat. (*Beltzek ez baitakite eskuaraz, hek bere mintzairan eta brigadiera gero eta gorago ari dira kalapitan*) Berdin duela... Zuek, ageriak xuxen izanik ere, ez zarete hemen sartzerat haizu...! Gerla hasteko heinean garela eta mugak hetsiak ditugula... Eta aski, hei...! Gu, gure tokietan gagozi... Zauzte zuek, zuenetan... (*Bi guardak deitzen ditu*) Zatozte zuek biak hunarat zuen armekin... Ikus dezatela muga zainduko dugula, hala beharrean, armez ere... Eta, fuera hemendik hei!!

POPOL: Jaun brigadiera... Aita misionesta, Afrikan hain luzaz egona baita, beharbada harek lagunduko zaitu horiekin mintzatzen.

BRIGADIERA: Bon, errozu jin dadien! (*Popol jalitzen da*)

KABO: (*Irri tzar batekin*) Auzo erresuma han omen da, goxotasunaren eta libertatearen erresuma. Horrat joatea aski, ontsa errezebitua izaiteko. (*Sartzen dira Aita eta Popol*)

BRIGADIERA: Ha, aita misionesta, horko jende horiekin nahi nuke mintza bazinte, elgar konprenitzen ahal baduzue segurik. (*Beltzak aita misionesta ikus ordu, lorietan harenganat doatzi... Haren eskueri pottaka... Arras ongi elgar konprenitzen dute*)

AITA XURI: Jaun brigadiera, Lurdeko beilariak dira, denak girixtinoak... Ontsa ezagutzen ditut haien bizilekuak.

BRIGADIERA: Bon... Errozute beren etxerat itzultzeko. Gerla bezperan girela, eta mugak hertsia direla.

AITA XURI: Zer...! Handik hunadino etorri jendea, ez ahal duzu hola haizatuko!

BRIGADIERA: Ez da fits egitekorik... Manua manu da.

AITA XURI: Ba, bainan kasuak badira, manua hausten dutenak... Jende hauk, beren tokiko buruzagietarik dira, eta Frantziaren adixkide handi batzu.

BRIGADIERA: Nik ez dakit nor diren.

AITA XURI: Nahi duzuia, biek telefona dezagun, jaun gomandantari?

BRIGADIERA: Berdin... Zuhaurek frogatuko duzu gomandantaren manua zoin garratzak diren.
(Biak jalitzen dira)

POPOL: *(Bere guarda lagunari)* Eta, hi eta ni, hemen, bi asto... Beltz horiek beharbada munduko jenderik hoberenak dituk, eta, manua ukanez geroz, guk horieri tiro eman beharko... Ezagutzen ere ez ditugun jendeak... Fits kalte egun ez daukutenak.

IXIDRO: Ahantziak dituk to hire brigadieraren predikuak: ontsa ikasia agertzeko, muga trebesatu nahi dutenekin... Ontsa ikasiek eskua luzatzen ditek gero, eta ez arma, zuek bezala.

POPOL: Bakea emak, to!

AITA XURI: *(Agertuz, brigadierari mintzo)* Ikusten duzuia...! Beharrik telefonatu baitugu.

BRIGADIERA: *(Batere ez kontent)* Bon, bon... Errozute tronpatu girela... Abusa-aitzu otoi gu apailatu

artio... (*Bi guarderi*) Zuek, eman esku-larru xuriak!

POPOL: (*Harritua*) Hee!

BRIGADIERA: (*Kexu*) Ba... Gomandantak telefonatu du, buruzagi gisa errezebitzeko jende horiek... Armak altxatuz eta gainerat xanpañarekin... Norbait direla, eta gerlarik balitz, horien beharretan gintezkela... Eta, bertze xehetasunik ez eni galda hei! Manua manu da... Bon eman lerroan... Bazireztea...! (*Manatzen ditu*) «Zangoak tink!», «Armak altxa, brau!» (*Beltzak emeki, ohorezki pasatzen dira garden aintzinean... Beti manatuz*) «Armak lurrerat, brau!», «Pausa zaizte!»... (*Oro jalitzen dira salbu Popol eta Ixi-dro*)

IXIDRO: Ziren eskualdean, axeria espos bide duk... Hala erraiten duk, iguzkia eta ortzea batean direlarik.

POPOL: Hik errak... Omen gerlaren bezperan girelata, gure horrek iduri duk zakur errabiatua.

IXIDRO: Ez dituk, to, denak gerla buruan bizi... Gure mutil hori, oixtian xirulean ari zuian... Ez zakiat ohartua haizen... Hori ditek, zombait egun hautan, elgarretaratzeko seinalea hire horrekin.

POPOL: Bon, bon... Laster ezteiak janen ditiagu beraz!

IXIDRO: Gerla baino, ezteiak jastatu nahiago ditiat, nik segurik!

MAYI: (*Popoli mintzo*) Aita, heldu naiz berehala. Bertzalderraino noa!

POPOL: Haurra, hobe duzu egungotz ex irriskatzea holakorik... Brigadiera arrunt minberan dugu.

MAYI: Bo, ez daut ez eni fits erranen.

IXIDRO: Gaixo Mayi, ez zazula penarik har, bainan, nik ere ez zaitut pasatzerat utziko.

MAYI: Zer zirezte? Elgar adituak?

IXIDRO: Ez, Mayi... Uzten bazintut, gure kaboa, otsoa bezala, berehala gainean ginuke.

MAYI: Ean halere...! Errozu kaboari pasatu nahi dudala... Segur naiz utziko nauela.

IXIDRO: Galdetzen duzunaz geroz, deituko dut. (*Deitzen du*)

KABO: (*Idorki Mayiri*) Zer nahi duzu?

MAYI: (*Graziarekin*) Jauna, laster horko mutil gazte batekin ezkontzekoa naiz... Hemen bizi da ondoan... Eta, nahi nuke, haren etxeraino joan.

KABO: Ez... Ez duzu ukanen holako baimenik. Ez baita sentimendukerian artzeko tenorea. Laster gerla

dugu... Ez uste mutil batentzat, ezkontzari pentsatzeko momentoa dela, baina bai gerlari.

MAYI: (*Nigarretan*) Zer...! Gerla dugula... Ez dudala ikusten ahalko ere

KABO: (*Ixidrori*) Eta zu, guarda, behin ere baino ernaigo egon hemen. Berri txarrak dira... Nehor, aditzen duzu, nehor, ez utz marra hunen trebesatzerat! (*Jalitzen da*)

IXIDRO: Mayi! Peyo hor ani zautzu keinuka.

MAYI: (*Beti nigarrez, muga bertzaldean agertu den Peyori mintzo*) Ho, Peyo...! Gerla omen dugu... Soldado altxatua izanen omen zira...

PEYO: Ez zaitela griña, Mayi... Gerlarik balitz, berehala desertatuko naiz horrat eta ezkonduko gira...

KABO: (*Agertuz, oihuka*) Erran dut! Nehor ez dadiela mugarat hurbil! (*Jalitzen da*)

IXIDRO: (*Peyori*) Otoi, habil hortik!

PEYO: Ba, aita ba... (*Bi gazteak berexten dira elgarri agurka... Mayi nigarretan. Jalitzen dira*)

AITA XURI: (*Agertuz*) Zer gertatzen da hemen?

IXIDRO: Gure gazteak ditugu kexu, muga hetsia dutela.

AITA XURI: Ni, horien alde... Eta segur naiz, munduko haur, gazte eta bihotz garbiko jende guziak enekin direla!

IXIDRO: Ba ote?

AITA XURI: Ez da dudarik... Laño den gogoaz ez baita mugatsu eta hertsikari, bainan bai ideki eta zabalduen adixkide.

IXIDRO: Eta, guk hemen zer bilakatu behar dugula zautzu, gerla lotzen balitz?

AITA XURI: Oraiko tresnekin, nekez laiteke ihiztari gerlarik... Ortzi berak erre lezazke mugen bi eskualdetakoak... Hoberenik laiteke, bakotxa, bere etxean egoitea, Jainkoari otoizka ortzirik ez dadien gure eskualdean eror.

IXIDRO: Hauze da emaiten daukuzun esperantza murrizta!

AITA XURI: Ez da hor haratik-hunatik... Oraiko tresnentsat, mugak Moisen denborako moldeak dira... Ken ditzatela lehenbailehen. Lasterrago kendu eta hobeago izanen baita gizonentsat.

KABO: *(Agertuz, ilun)* Ixidro guarda, zato hunadino...! Berri latzak ditugu... *(Ixidro jalitzen da)*

AITA XURI: Berri latzak...? Zer ote du....? *(Jalitzen da)*

BRIGADIERA: (*Agertuz, ilunki mintzo Popoli*) Zuk kasu ontsa eman eni... Baditut erraiteko pisuak... Ba... Lanoak metatuak dira... Memento batetik bertzerat gerla dukegu... Hortako egonen zira hemen erne... Eta, gerla hasi bezain laster, lotuko zira tiroka... Garbituko dituzu bertz'aldeko mugazainak.

POPOL: (*Arrunt etsitua*) Ba, hek ez banaute lehenik garbitzen.

BRIGADIERA: Hortako behar diozute aintzin aldea hartu... Aski diozute lehenik tiro emaita.

POPOL: Tiro eman, ene adixkide hoberenari?

BRIGADIERA: (*Idorki*) Erresumaren etsaiak ez ditazke adixkide izan. Zure arroparen ohorea zainduko ahal duzu!

POPOL: Hamalau egun presondegi baditut bilduak... Hek egin nahi nituzke berehala.

BRIGADIERA: Gerla denboran ez da presondegirik. Oro barka izanen dituzu.

POPOL: Ha, nunbaitik ere!

BRIGADIERA: Gure arropa ekartzen delarik, ez da gerlaz samur behar, bainan plazer hartu.

POPOL: Bai, hiltzeko plazerra.

BRIGADIERA: Ohore bat da gerlan odolaren ixurtzea!

POPOL: Nik segurik, nahi duenari uzten diot ohore hori...

BRIGADIERA: Hola dituzuia errespetatzen gerlako hilak?

POPOL: Nik ere, bertzek bezenbat. Mozkor bat ederra bildu ginuen heien ohoratzeko egunean.

BRIGADIERA: Gradutan aintzintatzeko ez da gerla baino parada hoberik...

POPOL: Nahiago dut gradurik gabe bizi, graduketan hil baino...

BRIGADIERA: Zu bezalako soldadoekin, nola nahi duzu gerla irabazi?

POPOL: Bizi jalitzen denak, harek du gerla irabazia.

BRIGADIERA: Ez zirea ahalge hola mintzatzeko...

POPOL: Familia ere hor dut.

BRIGADIERA: Hiltzen bazira, badira familientzat laguntzak.

POPOL: Beraz merkeago laiteke, donado bat, ene ordain hilaraztea...

BRIGADIERA: *(Oihuz)* Aski orai... Ixilik eta zangoak tink...! Zure ohorea zain-zazu...! Zure eginbidea bete-zazu. Ni hor izanen naiz gibeltxago gizon multxo batekin... Erne ernea egonen zira hei! Gerla hasten dela jakin orduko, tiro batzu tiratu-

ko dituzu airean... Orduan, berehala, manatua obratuko duzu hei...! Eta ez izan beldurti! (*Jalitzen da*)

POPOL: (*Bakarrik*) Ai, ai, ai...! Zer behar dut nik bilakatu! Nik tiro behar diotala eman bertzaldeko mugazainari...! Hori pentsatzeak berak lotsatzen nau... Oraino kaboari edo brigadierari, nunbait hor! Hok hastio baititut... Bainan bertzeri!! (*Ixidro agertzen da*) To, hor hiza, Ixidro! Zer haute...! Hi ere, ni bezala hunarat kondenatu?

IXIDRO: Ezin ukatua... Gerla omen diagu, eta gerla has ordu, hi hiltzeko manua diat.

POPOL: Nik berritz hi hiltzekoa.

IXIDRO: Errak, to, gutaz arras trufatzen dituk... Menekoak igortzen gaitiztek hiltzerat, berak lanjertik urrunduz.

POPOL: Ba, eta guri balentriak eginarazi-ta, ohore eta galonak hoiek ditizkek bilduko.

IXIDRO: Nahi duka, gerla hasten bada, berehala deserta gaiten, ni horrat eta hi hunat...!

POPOL: Ba gogotik! Tiro batzu airerat tiratzekoak ditik gure brigadierak, gerla has bezain laster.

IXIDRO: Ontsa duk... Egonen gaituk erne erne... Eta tiroak entzun orduko, gure armak lekuan utziz, muga trebesatuko diagu, hik eta nik.

POPOL: Ba, eta, gerlan ari daitela, hartan plazer dute-nak...

IXIDRO: (*Urrun tiro batzu entzuten dira*)... Ixo, ixo! Entzun zak... Horra tiroak...!

POPOL: (*Erdi nigarrez, asaldua*) Ho, gerla...! Gerla diagu beraz! Mugi, mugi... Deserta gaiten... (*Besarkatzen du Ixidro mugaren gainean*) Gaixo Ixidro... Hi, ene adixkidea...! Zer behar ote diagu bilakatu!!

IXIDRO: Berritz ikus artio, Popol gaizoa...

POPOL: Ba, agian ba... Eta, ez adiorik... (*Saindatzen dira etxolez*)

IXIDRO: Errak... Hobekiena diagu ator maukastea eta, mokanes zuri bat eskutan altxatuz, gizonetarat hurbiltzea.

POPOL: (*Mokanesa airetan erabiliz*) Hola behar den egin, to!

IXIDRO: Ba, hola. (*Dolorez eta Ramona agertzen dira*)

DOLOREZ: Jes...! Zer ari zaitze hola...? Zer dituzue, ihauteriak?

POPOL: (*Harritua*) Eta zuek, nun zabilzate hemen...?

Ez dakizuie gerla dela!

DOLOREZ: Oixtian ez segurik. Su panpa tiraka ari ziren hortxet, ez dela gerlarik... Bakea nausitu dela!

IXIDRO: Ha, deubrua... Uste ginuen gerla hasi zelako tiroak zirela... Erna gaiten to, Popol...! Berritz bezi gaiten eta har ditzagun gure lekuak...

DOLOREZ: Gorde zaizte lehenbailehen, gaixoak... Zuen beltz hoitarik bat, hor heldu da. (*Bi guardak, puskak harturik, gordetzen dira etxolen gibelean*)

KABO: (*Oihuz mugaren gainean dagotzin bi emazteri*) Zer dira molde hauk...! Hau dea mugaren errespetua...? Zer dira bi atso zahar hauk hemen? (*Ostiko bat emaiten diote heien saskiari*)

RAMONA: Errak to, hire mutur beltzaren barneko mihi hori garbixago ibilliko duk gero guri mintzatze-ko...!

KABO: (*Orroaz*) Preso...! Preso berehala...! Preso sartzan zaituztet! (*Ixidrok gibeletik Kabori ukami-
loa eskaintzen dio*)

RAMONA: (*Ixidrori*) Emok, emok matatzekoa zirtzil horri... Bertzenaz nik emanen zioat! (*Ixidrok gibeletik jo-eta, aurtikitzen du kaboa... Bi emaz-*

teek, Kabo ezartzen dute saskipean. Alditxarua da) Hola, hola...! Pausa-hadi nonbeit... Urde errabiatu pozoina... Aski bertzeak zangopean atxiki baitituk... Hire saindea orai... (*Saski gainean jauzika*) Zapa, zapa hor!

DOLOREZ: Merezi liken urez gainetik bustitzea...

RAMONA: Urez...? Izaitekotz ere zerri putzuko urez, urde zikiñ hori!

MARTZALIN: (*Saskia eskuan agertuz*) Jes, zer ari zarete holako arramantzetan?

DOLOREZ: Zato hunarat ikusterat...! Oilar bat emana dugu freskatzen saski hunen azpian!

MARTZALIN: (*So eginez*) Jes! Kabo txar hori duzue-eta hor...! Nundik bildua duzue barne hortarat?

DOLOREZ: Kukurruku goregi egiten baitzuen, eta guk, bipildu!

BRIGADIERA: (*Agertuz, orroaz*) Bainan, bainan... Zer gertatzen da hemen...? Zer da astaña merkatu hau muga huntan...? Bainan... Nun dira hemengo guardak hei...?

RAMONA: (*Popoli mintzo*) Lumero biga... Orai hire aldi... Emok asto huni ere zaldarea... Bertzeari bezenbatekoa bederen emok, ez daiten bat bertzearen jelos izan. (*Popolek gibeletik jo-eta aur-*

tikitzen du Brigadiera, ezagutzaz gabeturik)
Biba... Biba lumero biga... Hori duk hori, lan gar-
bia egitea... To, hik ere tapakia. *(Martzelinen*
saski-pean ezartzen du) Urde zerriak... Agozte
hor nonbait... Ixtant bat bederen bakea emanen
duzue hemengo jendeari...!

IXIDRO: *(Popoli)* Errak to, Popol, gu goazen lehenbai-
lehen bakotxa gure gizonetarat. Tiroak entzu-
nik, hemendik urrunduak izanen gaituk. Guk ez
diagu deus aditu, eta ez deus ikusi.

POPOL: Ba, ba, goazen... Agian horiek ere, ez ditek
fitsik ez aditu, eta ez ikusi. *(Ixidro eta Popol jali-*
tzen dira)

DOLOREZ: *(Ramonari)* Har zar no, muga haga hau...
Behar diñagu bazterrerat kendu.

RAMONA: Pena dun ez baita hemen su bat hunen erre-
tzeko!

DOLOREZ: Ez dun goizegi muga hau libro baita. Mun-
duko emazteki guziek, guk bezala behar liketen
egin... Mugak kendu eta heien zaintzaleak
saski-pean eman... Bertze bakerik luken, no,
orduan, bazterretan. Eta orai, goazen gu ere
ihesi, hauk atzarri baino lehen. *(Jalitzen dira.*
Emeki, saskiak hasten dira mugitzen... Agertzen

*dira, baten besoa... bertzearen bisaia... eta,
betbetan oihala jausten da)*

OIHALA

BIGARREN GERTALDIA

Taula-gaina:

Ostatu barne bat... Ostaler senar-emazteak ari dira kadirak zaldi ferraren itxuran ezartzen, ferraren idekidura jenderi buruz... «Radio» bat, ezkina batean...

OSTALERTSA: Jes, bainan zenbat kadera behar dituzte? Ez dutea gutixagorekin aski?

OSTALERA: Eman dezagun ausarki... Nik uste, izanen direla: Presidenta bere bi beretterekin... Gero, bi mihi luze.

OSTALERTSA: Bi mihi luze...? Nor dira horiek?

OSTALERA: Eskualde baktxak izanen du bere mintzalaria, auzitan bezala... Mintzalari horiek deitzen ditut: mihi luzeak. Gero, nik dakita zenbat mugazain... Emazte batzu ere, eta uste dut, gaizo Aita Xuri ere hemen izanen dela.

OSTALERTSA: Eta gure ostatu hurtan xuritzeko orde beren auzia, ez zirena egiazko tribunaletxe batetarat biltzen ahal?

OSTALERA: Ez... Jendea hain omen baita asaldataua, beldur dira, denek lakiketen toki batetarat bilduz, nahasmenduak gerta daiten. Hortako, nahiago izan dute beren auzi lekua ostatu gorde huntan muntatu. Laster denak hunarako dira.

OSTALERTSA: Jes, jendea horrenbertzetaradino asaldataua baita holako gertakari xume batentzat?

OSTALERA: Ba, gertakaria arras xumea duzu. Bainan, hortaz, kazeta-egilek eta radiotako buruzagiek halako burrunba muntatu dute, nun jende guzia burtxoraturik baitaukate.

OSTALERTSA: Ha, baia?

OSTALERA: Segurki baietz... Ori, tenora da. Idekazu radioa! Entzunen duzu nola mintzo diren batzua ala bertzeak. *(Idekitzu du)*

RADIOA: *(Boza asaldatu bat mintzo)* Ici, radiodiffusion nationale... Après l'incident de frontière que le monde entier connaît désormais, la situation demeure extrêmement tendue. Nos troupes sont sur le pied de guerre... A l'heure actuelle, une commission internationale réunie près du

lieu même de l'incident, essaie d'arrêter le conflit imminent. Le gouvernement calme et ferme est décidé à exiger le respect dû à nos frontières et la réparation due à notre honneur. Uni derrière le gouvernement, le peuple unanime est prêt à faire face à la situation avec discipline... LA PATRIE EST EN DANGER...! LA PATRIE SERA DEFENDUE.

OSTALERTSA: Jes, hortan girea...? Ean zen dioten bertze aldekoek. (*Botoia itzultzen du*)

RADIOA: (*Zintzur boza bat*) ¡NO QUEDARA IMPUNE ESE HORRIBLE ATENTADO! ¡ESCUCHA LA VOZ DE TUS PADRES! FIEL A SU DIVISA, TE PRESENTARAS ANTE TUS ENEMIGOS, SALIENDO ADELANTE A PESAR DE LA METRALLA Y GRITANDO A VOCES: ¡POR DIOS Y POR LA PATRIA!

OSTALERTSA: Bainan, bainan...! Arras burutik joan behar du holako galernaren muntatzeko, bi gizon txar saski-pean ezarri dituztelakotz.

OSTALERA: Hola duzu oraiko mendea... Beren radio eta kazetekin izpirituak norat-nahi itzulikatzen dituzte, eta frangotan gezurrez.

OSTALERTSA: Ezin onetsia daukat hori. Zer dute, gizonek hola itsurat sinesten...? Ez dutea adimendu-

rik, entzun eta irakurrien puxka bat zetabetezko?

OSTALERA: Ez duzu oraiko gizona gora... Hamarretarik batek baduke bere-baitako pixka bat... Baina bertze bederatziak norat baitoa kazeten eta radioaren burrunba-eta, harat doatzi: oilo luma haizea doan eskualderat joaiten bezain segur... Ha, hemen ditugu gure biligarroak. *(Sartzen dira Popol eta Frantziz)*

FRANTZIZ: Hau dea gure bil-tokia?

(Kasurik ere egin gabe) Ez, ez... Arras ontsa da. *(Lotzen da bere abokat jauntziaz beztitzen... Senar-emazteak jalitzen dira)*

POPOL: Bon jauna, zu zirenaz geroz gure aldeko mintzalaria, egia aitortuko dautzut den bezala...

FRANTZIZ: Ez du balio akit zaiten eleketan, arras axola guti dut nik egiaz!

POPOL: *(Harritua)* Egiaz arras axola guti...? Nola beraz nahi duzu gure eskualdea zaindu?

FRANTZIZ: Ez naiz batere zure alde mintzatzera etorria!

POPOL: He...! *(Erotua papotik hartzen du)* Ustel zikina hi! Zer erran dautak ba ene abokata hintzela! Faltsu, mutur zuria hi!

FRANTZIZ: Gizona, emeki zaude...! Entzun nezazu lehenik...

POPOL: Zer entzun...? Ez duta hiharek errana gobernamentuaren izenean heldu hintzela gure alde mintzatzeko karguarekin?

FRANTZIZ: Ba, hori hola da... Hori egia da... Bainan ezti zaite... (*Pixka bat eziturik*) Gobernuak eman dautan manua da zuri gertatuaz ez batre griñatzeko... Bainan mugako gertakari hortaz ahalik burrunba handiena muntatzeko!

POPOL: Zer derasazu...? Ez dut fisik konprenitzen!

FRANTZIZ: Ez da konprenitzeko nekea... Dakizun bezala, zergak gora dira eta ezin bizia hainitz familietan... Jendeak hasiak marmarizaka gobernuaren kontra... Gobernuak ez du izan nahi jendeen elapide eta hortako jendeari eskaini nahi liokete bertze elapide zerbaitez... Bertze elapide muntatzeko manua dut, zuen gertakariaz baliatuz!

POPOL: (*Dudetan*) Ez dakit ez den hor faltsukeria zerbaitez.

FRANTZIZ: Den gutienik... So egizu... Mando zahar batetik nahi badituzu uliak urrundu, hartarik urrunago ezar-azu ustelki meta bat... Mandoa

utzirik, uliak ustelki hartarat joanen dira... Gure oraiko gobernuak iduri du mando zaharra... Jendeak ari zaizkio, uliak bezala, jan nahiz. Hortako gobernuak, muntatzen du ustelki meta bat, bereganik harat joan diten uliak.

POPOL: Eta, beraz zu zer zira...? Ustelki haren muntatzerat jina...?

FRANTZIZ: Ba, hala niz... Konprenitu dugu.

POPOL: Eta beraz ni, denen uzki-pitxer...!

FRANTZIZ: Ba, eta oraino zu baino deusezago hanitz jende... Zuk bederen badakizu nola den partida... Faltsukerian dela... Bainan, jende gehienek holakorik ez baitute jakinen, ikusiko dituzu bakotxa bere eskualdearen alde oihuka, patriaka, erotuak!

POPOL: Gaizo jendeak!

FRANTZIZ: Gizonen artaldea artzain multxo batek derabilate. Artaldeari elapideak behar zaizkio fornitu... Onetik ez delarik, fornitzen zaio ahal denetik. Bainan ixo! Hemen ditugu jaunak... *(Ohorezki sartzen dira: Presidenta, Sekretarioa, Castillo, Aita Xuri, Brigadiera, Kabo, Ixidro, Dolorer, Ramona, Anton... sartzen dira bakotxa beren tokitan.)*

PRESIDENTA: Nazioen artean, bakearen beiratzeko moldatua den batasunaren izenean, auzia idekitzen dut... Jaun Sekretarioa, otoi irakurriko daukuzu auziaren harat hunata.

SEKRETARIOA: *(Ezin irakurtuz)* Argirik ez dea...? Ez dut fits handirik ikusten... *(Lotzen da irakurtzen)* Mila bederatzi ehun eta... Agorrilaren... Agorri-laren... *(Ez du aski ikusten)*

PRESIDENTA: Utz-aizu otoi xeheteria horiek bere gisa. Emazu berehala gertakariaren mamia.

SEKRETARIOA: *(Paperetan galdua, baten irakurtzen abiatzen da)* Guarda espainolak erran du jina zela mugaren ikusterat, noiz eta ere... *(Gelditzen da irakurtzetik)* Ez, sobera urrun joana naiz... Goraxago behar nuen hasi irakurtzen. *(Paperetan galdua dabil)* Bainan, argirik ez dea etxe huntan?

PRESIDENTA: *(Bizi-bizia)* Ontsa da... Denek baitakigu hemen, mugako gertakarien berri, auziari segida emanen diogu, batere paper horien irakurtzean, denborarik galdu gabe.

SEKRETARIOA: Nahi duzun bezala, Jaun Presidenta. Bainan abisatzen zaitut ez zarela legez ari, eta hola kudeatuko auziak ez duela balio.

PRESIDENTA: Ez da hau higizonez arteko, bainan bi erresumen arteko. Bertze largantzarik zor zaio huni... Ez gaiten beraz, hemen, bertze auzientzat eginak diren lege xeheterietarat jauts.

SEKRETARIOA: (*Beti minberaki*) Bon, bon, nahi duzunaz geroz!

FRANTZIZ: (*Xutituz*) Lekuko hartzen ditut hemengo presuna guziak, auzi hau ez dela legezkoa. Eta, behar orduan, hunen hausteko eta berritz hasteko dretxoak beiratzen ditut.

CASTILLO: (*Xutituz*) Nik ere, dretxo berak, ene eskualdetik beiratzen ditut. (*Anton agertzen da argi batekin*)

SEKRETARIOA: (*Lorietan*) Ha, ha... Huna argia...! Orai irakurtzen ahalko dut.

PRESIDENTA: (*Frantzizeri*) Zuri, jauna, emaiten dautzut solasa... Mintzatzen ahal zira.

FRANTZIZ: (*Predikatzen bezala, zintzoki*) Jaunak eta andereak... Ohore bat zaut egun hemen mintzatzeari, ez nazioneak kargu horren betetzeko ni hautatu nauelakotz, ez eta ere, mundu guzia ene ahotik zer jaliko den so dagola, senditzen ahal nuken urguluarengatik, bainan bakea, bake sakratua, lur huntako ontasunetan lehena

zerbitzatzeko, konfientzia hoinbertze gizonenganik ukan dudalakotz. Bai, bakea zerbitzatzerat jina naiz hunarat, bakezko solasak nahi ditut aipatu, bakea finkaturik nahi nuke hemendik atera.

CASTILLO: Emazu beraz bakea!

PRESIDENTA: Otoi utz-azu jaun hori, duen sailaren segitzerat.

DOLOREZ: (*Ixilka Ramonari*) Hum, bertze mihi luze hori ere, ez bide dun nor-nahi!

FRANTZIZ: (*Predikua segituz*) Bakea ginuen aspaldian gure mugetan. Jendeak zorion osoan bizi ziren, bakotxa bere etxean, bakotxa bere eskualdean ere; Jainkoak bere iduzkiaz berotzen zituela, eta bere xorien kantu xarmagarriez deskantsatzen eta loriatzen.

CASTILLO: Ba, eta denak, hori bezala, xampaña edanez bizi!

PRESIDENTA: Otoi jauna!

CASTILLO: Sudurra hor ahal du lekuko zer edaten duen!

FRANTZIZ: (*Segituz*) Bainan, Satanez ez zezaken jasan holako bakearen zoriona... Satan, herraren eta gerlaren nausiak, bere hats latzaz buha-

tu ditu mugaz bertzaldeko aintzindari batzu gerla-suaren pizterat. Kukua, xori hitsa, bertzeen ohantzetarart sartzen den bezala, aintzindari horiek sartu dira gure eremuetarat.

CASTILLO: Ba... Buzoken ohantzerat!

FRANTZIZ: Baitezpada gerla piztu nahiz, gure lurra zangopilatu dute, gure muga errotik kendu, eta, mugazain zagotzin aintzindari bat eta guarda bat, gibeletik atakatu dituzte... Guardari diozka-te armak eta arropak kendu... Aintzindaria aldiz gibeletik joz, itsuski kolpatu, eta trufa tzarra, odola darioan, saski baten azpian ezarri.

CASTILLO: Harritua nago lurreko harriak berak nola ez diren xutitzen, holako gezur alimaleak entzunik.

DOLOREZ: (*Irriz*) Arrazoina duzu... Hori handixkoa bota duela nindagon ni ere.

PRESIDENTA: Ixilik...! Utz-azue jaun hau mintzatzerat... Gero mintzatuko zarete bakotxa zuen saindean.

FRANTZIZ: Edozoin gizoni egin laidoa balin bada latz, oraino latzago, delarik egina gizon prestu, ohoragarri, aita familiako bati. Ezen holakoa da, deneri etsenplutzat eman ditaken gizonetarik da, saski-pean sarraskitua gaxtagin...

RAMONA: Bai, hori bai, gisakoa behin bederen, denen etsenplu izaiteko... Horren emaztea atorrik gabe ziabilak, gizonak irabazi guziak zurrutean xahutzen baititik. (*Denak irriz*)

PRESIDENTA: Berritz eta berritz, dautzuet ixilik egoiteko!

CASTILLO: Emazte horri elea kendu diozu, bainan arrazoina, ez!

FRANTZIZ: Horra beraz zer egitate hutsetaraino erori diren gure auzo-nazione hortako haurrak! Funtsa, ez da estonatzeko: nolako fama, halako lana... Ezen, holakoa da nazione hori: nazione urguluduna... Galdu ditu bere funts eta axolak, bere izaite eta obretan, bainan ez bere ele eta pentsamendutan... Higaduraz mehartua, bainan ametsez beti hantua bizi da. Handiz apaindua nahi du agertu, bainan handikeriaz da bakarrik aberats... Nazione behartsua, jakiz bezenbat jakintzaz gosetua, bere zortea hobetu nahiz, maiz gidari saindaka ani dena... Zorigaitzez, horko gidariek, aintzinetik agintzak lodi bezen, ondotik egintzak mehe dituzte. Hortako, bizi dira menekoen hastioan eta beldurrean. Eta, meneko hek, ez daiten asalda, edo dituzte

zapan, bortxapean atxikitzen, edo, berenganik, heien kolera baztertzeko, saltsa batzu dituzte muntatzen, erranez: saltsa hortaz okupatuko direno, bakea emanen daukute... Gurekin nahi izan dute orain saltsa piztu, gure bizkar nahi lukete eztitu eta hustu, menekoek heientzat duten karratxoa. (*Boza azkartuz*) Ez gaituzte enganatzen... Holakorik sekulan ez dugu onartuko, eta mundu guziari, mintza-toki huntarik nahi diot salatu nazione hortako buruzagi sorjesen egitate lotsagarria.

CASTILLO: (*Bizi-bizia*) Jaun Presidenta, uste nuen hunarat bakearen muntatzeko bilduak ginela... Bake solasen ibiltzeko orde, bildu bagaituzu hunarat, gezur zozokeria eta mihi luzekerien entzuteko, otoi abisa gaitzazu, nik eta ene lagunek, denborarik ez dezagun gal.

PRESIDENTA: Ba, ene desira laiteke, bakea munta dezagun. Hortakotz, otoizten zautzet ere, ele nahasiak bazterrerat utzirik, bakezko solasak bakarrik aipa ditzazuen.

FRANTZIZ: (*Kartsuki*) Bakea, o bakea...! Gure nazio-neak ez du bertzerik galdatzen... Ekaizpean den untzia portua bezala, eri handi denak osaga-

rria bezala, desertuan egarriaz itoak ura bezala, gure nazionean, orok, ttipi ala handiek, bakea dugu desiratzen... Goiz alba ederra, ama presuaren begitarte goxoa, haur ttipiaren irri lañoa, noiz bada lanbrorik gabe da agertuko, gerlaren kezka ilundurik daukan zuen apaindura garbia...? Ha, bakea...! Borondate oneko jendeen izarra...! Bertutetan lehena...! *(Aita Xuri xutitzen da betbetan jalitzeko)*

PRESIDENTA: Norat zoazi Aita Xuri?

AITA XURI: Bakearentzat otoitz egiterat!

PRESIDENTA: Ez zirea kontent, hoin erran ederren entzuteaz, bakearen alde...

AITA XURI: Ez, beldur bat emaiten dautet...

PRESIDENTA: Zer beldur?

AITA XURI: Egundainotik, bakezko solas ederrenek gerla baitute preparatu!

CASTILLO: Arrazoin du, aita misionestak... Hortako, berritz ere diot, bakearen alde agertzen zaukun urtzo hori, buzoka tzar bat dela.

FRANTZIZ: Jaun Presidenta, abisatzen zaitut Aita Xuri hori, gure gobernuaren etsaietarik dela. Eta zu, Aita Xuri, jakin-azu gure presundegiak zuretzat ere berdin eginak direla.

CASTILLO: Horra, Jaun Presidenta, gizona bere ahotik galtzen... Horra nun buzoka urtzoari den oldartzen.

PRESIDENTA: Bon, ontsa da... Aita Xuri, otoizten zaitut hemen egon zaiten, lekuko gisa... Lekukoak entzun ondoan, bertze mintzalariak eginen du hitzaldi... Hurbil daitela bi andere arrain saltzaleak. (*Hurbiltzen dira*) Eskua altxatuz, egi-zue juramentu erranen duzuela egia bakarrik, eta egia osorik... Altxa biek eskua eta erras: juramentu egiten dut.

SEKRETARIOA: Alo, altxa ba eskua!

DOLOREZ: Eskua altxa...? Zertako?

SEKRETARIOA: Egizue juramentu!

RAMONA: Errak to, hi «Artikulu» zer gaituk? Traputzar-ketarienzat hartzen...? Ez gaituk gero gu juramentuka aritzerat etorriak hunarat!

SEKRETARIOA: (*Kexu*) Jaun Presidenta, galdatzen dut gizonen eta legearen errespetua.

RAMONA: Ba, eta, emaztekien errespetua ere. Hasteko, ez dakit, Jaun Presidenta, zertako ekarri duzun hunat gizon itsusi meleka hori!

SEKRETARIOA: Ho, ho...! Presidenta, afruntu hori ez ahal duzu hola pasatzerat utziko!

PRESIDENTA: (*Bizi-bizia*) Jakin-azue jaun hau, tribuna-leko sekretario estimagarrienetarik bat dela, eta ez dudala onetsiko huni egin dezozuen afrunturik... Eta, hola denaz geroz, mintzatuko zarete, batere eskurik altxatu gabe.

SEKRETARIOA: (*Deskontent*) Bon, nabi duzun bezala, Jaun Presidenta. Bainan, hola, horion errana ez da legez izanen.

FRANTZIZ: Oroituko gira Jaun Sekretarioaren erranez!

CASTILLO: Gu ere ba!

PRESIDENTA: (*Bi emazteri*) Muga hortan harrapatu saskiak zuenak zirela, jada aitortua duzue. Erradazue saski horiek solaz ziren muga hortan!

DOLOREZ: Gaixo Jaun Presidenta, hori ez dakigu... Bi oilar emanak gintuen freskatzen, bat saski bakotxaren azpian... Geroztik saski hoik ez ditugu ikusi.

PRESIDENTA: Eta, oilarrak zer bilakatu dira?

DOLOREZ: Oilarrak zer bilakatu...? (*Irriz lotzen da*)
Oilarrak zer bilakatu...? (*Ramonari*) Hirea zer bilakatu dun no?

RAMONA: Nerea, berritz ere pilotan abiatu, Jaun Presidenta.

DOLOREZ: Nerea ere ba, Jaun Presidenta... Luma batzuek lepo zokoan eskas ditu, bañan halere oilotakoa egiten du.

PRESIDENTA: (*Bizi-bizia*) Bon, aitor-azue fitsik ez daki-zuela, eta hortan paso! Ez da hau jostaki mintzatzeko tenorea eta tokia!

SEKRETARIOA: (*Deskontent, denak lekuko hartuz*) Ba, berdin du zernahi erraiten badute ere... Horien errana ez da bali... Ez baitute eskua altxatu.

RAMONA: Gogotik eskua altxa nezakek hitarik hurbiltxago banintz, marmalu beltza, hi!

SEKRETARIOA: Ho, ho, Jaun Presidenta... Entzun duzuia, Jaun Presidenta?

PRESIDENTA: (*Bizi-bizia*) Bon, huntan aski...! Andereak doazila beren lekutarat eta hurbil bedi Aita Xuri... (*Hala dute egiten*) Aita Xuri, juramentu egiten duzuia, egia erranen duzuia, egia baka-rik eta egia osoki...? Eskua altxa-azu, erranen: Juramentu egiten dut. (*Aita Xurik eskua altxa-tzen du, bainan eskuarekin «ezetz» dio*)

SEKRETARIOA: Eskua altxatu du, bainan horren eskuak «ezetz» dio... Hori ez da legez haizu...

PRESIDENTA: Ala, beldur zira mintzatzeko?

AITA XURI: Nor ez laiteke hola...? Egia erranez, denak makurtzen ditut...! Gezurra erranen, nihaur makurtzen naiz...! Hortakotz, ixilik egongo naiz!

FRANTZIZ: Ixilik egonez, hobendunak tapatzen dituzu.

AITA XURI: Ez ahal zautzu gomeni?

CASTILLO: Pena da ez baigituzu lagundu nahi argiaren egiten.

AITA XURI: Zerbait bada ilunaren beiratzan laguntzea!

PRESIDENTA: Hola denaz geroz, errespetatuko dugu Aita Xuri, erretiratzan ahal zira. Horren orde, hurbil ditela bi guardak. (*Popol eta Ixidro hurbiltzen dira...*) Egin-azue juramentu erranen duzuela egia, egia bakarrik eta egia osorik...

POPOL: Juramentu egiten dut.

PRESIDENTA: Jaun guarda frantsesa, erradazu zer dakizun mugako gertakari hortaz...

POPOL: Zera, jauna, zera... (*Frantzizek keinu egiten dio ahoa hesteko...*)

PRESIDENTA: Zer, zera...?

POPOL: Zera... Ba, nik ez dakit ez deus handirik zera...! (*Frantzizek, begi tzar batekin, keinu egiten dio ixil dadien*)

PRESIDENTA: Ba ahal dakizu nola zaituzten atorra maukas eta armez gabeturik?

POPOL: (*Bere tripari lotua*) Ai, ui, ai, ai, ai...!

PRESIDENTA: Zer duzu ai eta ui...? Zu bederen, armetako gizon bipila, ez ahal zira beldur izanen egiaren erraiteko!

POPOL: Behar ordu bat bet-betan heldu zaut, Jaun Presidenta, ai, ai, ai...! Nahi nuke kanporat jali.

CASTILLO: Gizon horrek estakuruak ditu... Galdatzen dut, Jaun Presidenta, hemendik jalizeko baime-nik ez dezan ukan.

FRANTZIZ: Ez ahal da nehor aski bihotz gaberik izanen gizon bati holakorik errefusatzeko!

CASTILLO: Galdatzen dut tribunaletako erreglamendua beiratua izan dadien.

SEKRETARIOA: Ha ba...! Hori ba...! Hori funtsez mintzatzea da.

PRESIDENTA: Ean ba zer dion erreglamenduak...

SEKRETARIOA: (*Liburu handi bat idekiz*) A.B.C.K.K.K. Kasu bereziak... (*Irakurtzen du*) Norbait, zerbait behar-ordutan gertatzen bada tribunalaren aintzinean, edo behar-ordu iraunkorra, edo behar-ordu laburra... Behar-ordu iraunkorra bada tribunalak, gertakariaren arabera, edo bere lana segi dezake, edo bere lanaren segitzea igor dezake bertze tenore batetarat... Behar-ordua

balin bada laburra, tribunalak hasi saila segi dezake... Beraz, Jaun Presidenta, ikusi behar laiteke ean gizon hunen behar-ordua den laburra ala iraunkorra.

FRANTZIZ: Ez dakit laburra edo iraunkorra den horren behar-ordua, bainan diot dela presatua!

CASTILLO: Galdatzen dut Jaun Sekretarioak irakurdezan erreglamenduaren segida...

SEKRETARIOA: Ba, ba... Huna zer dion segidak: (*Ira-kurtuz*) Behar-ordua iraunkorra edo laburra den ikusteko, tribunalak deituko du miriku bat, eta hunen kontseiluari jarraikiko da.

CASTILLO: Ha... Horra erreglamendua... Jaun Presidenta, galdatzen dautzut miriku bat dei dezazun hunat, ikus dezan nolakoa den gizon hunen behar-ordua.

RAMONA: Mirikuak zer egingen zioke horri, gaiztoa! Usain edo zer? (*Denak irriz*)

PRESIDENTA: Ixilik...! Hau ez da tribunalaren errespetua!

POPOL: Ai, ai, ai...! Ni ez nintake gehiago egon...! (*Jalitzen da tira-ala*)

PRESIDENTA: Norat zoazi, dohakabea?

RAMONA: Norat, norat... Kokorikatzerat, dudarik gabe?

SEKRETARIOA: Ha, ha... Hori ez da erreglamendua!

CASTILLO: Jaun Presidenta, galdatzen dut gaztigu garratzena, ihesi joan den gizonaren kontra... Horrek berak erakusten ahal du nor den hobendun.

PRESIDENTA: Bon, hura itzuli artean, bertze guardari eginen diozkagu galdaketak!

CASTILLO: Ez, Jaun Presidenta, ez... Legeak nahi du entzun ditzagun bi eskualdeak... Biak edo bihirik ez... Ene kideko guardak ez dautzu beraz erreputarik emanen, bertzea ere mintzatuko ez deno.

PRESIDENTA: (*Kexu*) Ontsa da... Joan dadiela beraz guarda espainola bere jar-lekurat, eta hurbil daitela bi aintzindariak (*Kabo eta Brigadier hurbiltzen dira*)... Eskuak altxatuz, egizue juramentu erranen duzuela egia, egia bakarrik eta egia osorik.

KABO: Juramentu egiten dut.

PRESIDENTA: Lehenik mintza bedi Kabo fauna: Galdatzen dautzut nork ezarri zituen saskipean!

KABO: (*Errabian*) Frantses multzo bat, beti bezala ustelkeriaz, ez baitaki arraza horrek bertzela oldartzen, multzo bat beraz, jin zauzkit gibeletik, burutik behera mazotaz jo nute, eta hiltzat utzi, saski baten azpian gorderik.

PRESIDENTA: (*Brigadierari*) Eta zuri, zer gertatu zautzu?

BRIGADIERA: Hogeia bat espainol kokotero ongarri zikinek joka eho naute eta, odoletan, berak bezain usainduzko saski baten pean ezarri.

RAMONA: Errak, gure saskiak errespetatuko dituk gero... Zardin usain ona ditek, eta ez hik bezala ustel usaina.

FRANTZIZ: Jaun Presidenta, galdatzen dautzut, tribunalaren errespetuarengatik, emazte hori kanporat eman dezazun bere usainekin.

RAMONA: Eta nik galdetzen dut, Jaun Presidenta, kanporat eman ditzatzun bi mihi luzeak, bertze bi oilar lepo larrutu hoiekin... Berdin denak elgar iduriak baitire!

PRESIDENTA: Ixilik denak... Hau ez da bake muntatzeko moldea!

KABO: Bake edo ez bake, lehen gurutz'aldian brigadier mandil horri, nik muturra hautsiko diot.

BRIGADIERA: Eta nik hiri tripak aterako...

PRESIDENTA: (*Kexu*) Ixilik...! Eta zoazte baxotxa zuen tokirat...! Aski badut zuen lekukotasunaz...! Hola ez dugu fits ontzen! (*Zintzoki*) Galdatzen dautzuet orori: izan zaitezten zuen zainen jabe... Oroit mundua guri so dagola, bakea edo gerla gure eskuetan direla... Holako oren latzetan, baxotxak, denen ongiarentzat, bere samin-durak sar ditzala. (*Castillori*) Jaun mintzalari bigarrera, zure aldi orai hitzaldiaren emaitea.

CASTILLO: Jaun andere ohoragarriak. Haste hastetik, berri on bat nahi dautzuet salatu, enetzat kontsolamendu den berri bat, erakusterat emaiten baitu gure gobernuak badakiela bere zerbitzarien merezimenduen ezagutzen... Berri on hura, huna. Mugako gertakari haien ondotik, lehenik: Galon bat gehiago ematen diola, etsaiak odoletan ezarri daukun aintzindari dohakabea-ri... Bigarrenekorik: Medaila baten ohoratzen duela gure guarda bipil, etsaiak gaizki ibiliaren papoa. Horra ene berria.

FRANTZIZ: Gutiz ez utz...

PRESIDENTA: Ixilik...! Jauna segi-azu zure mintzaldia.
(*Popol sartzen da*)

RAMONA: To, gaizoa, ez duk hik medailarik irabazi...!

POPOL: Zer medaila?

RAMONA: Eskainiko daiat nik bat ederra... Badituk sal-
tzeko, hiru liberetan, Xokoletenean.

PRESIDENTA: Berritz eta berritz, ixilik...! (*Castillori*)
Zu, mintza zaite.

CASTILLO: Iduritzen zaut bertzalde, huts bat, huts bat
gaitza, ezin sinetsia egina izan dela auzi hun-
tan... Guk badakigu nor den Kabo jauna... Bada-
kigu horren erranak egia zilarrak direla... Bai-
nan, mesfidatzen gira brigadieraz... Egiaz min-
tzo ote da, diolarik odoletan ezarri dutela saski
azpian...? Saski hartan ote zen odol haztar-
nik...? Eta han balin bazen odola, horrenetik ote
zen? Jaun Presidenta, egin-arazi duzuia delako
odol haren miatzerik...? Hortan da, auzi hunen
ahulezia... Hortakotz galdetzen dut, brigadiera-
ren saskiko odol xortak bildurik, jakintsuetarat
igorriak izan daiten, ikusteko zen duten sala-
tzen.

RAMONA: Bai, aspaldi gure Yukik milikatuak ditik to,
gure saskitako odol xorta eta gaineratekoak.

FRANTZIZ: Ez bide zen espainol odoletik Yukik edan
duena, ez baitzen biziko.

PRESIDENTA: Aski...! Mintza gaiten zintzoki!

CASTILLO: Ba, zintzoki baino gehiago, mintzatuko naiz kartsuki... Ezen, oixtian ene mintzalari lagunak jali dituen eleak ene erresumaren kontra hor dauzkat, opil bezala, ene bihotzaren gainean... Bizkar zabala balin badut ene buruaren kontra erranen jasaiteko, aitor dut ene erresuma maitaren kontrako solasek, barnea minberatzen dautatela, zauritzen eta eritzen.

FRANTZIZ: Purga zaite, purga, gizona!

CASTILLO: Gure erresumak, gure gobernuak, frantses jauna, ez dute zorrik zuenari, ez eta nihungoeri... Badakit, zuen gobernuko etxetan, hiru hitz beti ezarriak direla: Liberté, Egalité, Fraternité. Guk ez ditugu hitz horiek, zuek bezala, kanporat nunnahi berduratzen, bainan ba barnetik, zuek bezain ontsa edo hobeki obratzen... Zuek duzue hitzen espantua, guk heien errespetua... Zuek eskaintzen plana, guk egiten lana.

FRANTZIZ: Zuentzat lastima!

CASTILLO: Denak libro, denak anai, denak berdin izaiteko petrentziona duzue zuen erresuman. Bainan, zuen lurretan, bertze edozeinetan bezenbat, handiak handi eta ttipiak ttipi... Libertatea

duzuela...? Zeren libertatea...? Nahi duzuenaren erraitekoa omen... Bainan badea zuen radio eta zuen kazetak baino ustelagorik? Populuaren libertatearen alde omen zarete! Bainan zuen meneko populuek galdatu dutelarik beren libertatea, eman diozueatea? Zuen libertatea, gurea baino zabalago duzuela? Zabalago bai: lizunke-riako, biluzeriako, basakeriako, bainan errespeturako eta onerako? Jendetze funtsik gabea, zuen buruaz hartua, berduratua, lizuna, petrenzinez betea eta perttolia, horra nolakoak zarenten! Bertzeen jorran artzeko orde, beha bazinezate zuen buruari, sentimendu bat bakarrik behar zinukete zuen baitan, sentimendu hura: Ahalgea!

FRANTZIZ: Ha, bere tripa hustu dauku gure jaunak! Horra beraz zertaz zuen betea. (*Mespresioki*) Gizon eskaxa, ondu gabea! Gizontasuna oraino bere baitan bakarrik xitan daukana...! Gixona...! Hau entzunez, badukezue auzo nazione hortako haurren izaria!

CASTILLO: (*Samurki*) Ni gixona banaiz, zu aldiz emaxte... Galtzak soinean, baina zaiekin hobeki baitzintazke... Gizontasunik ez daukazu xitan ere

zure baitan... Zure ele ergeletarik aski seinale da, gizontasunaren hazia betikotz errerik daukazula!

FRANTZIZ: *(Gero eta gorago)* Nor da hola mintzo? Ez zintudan, orai artio, zure ustel famaz bertzerik ezagutzen. Ikusten dut orai ez zirela bakarrik hala izanez, bainan ere izanez.

CASTILLO: *(Gero eta gorago)* Eta zu, ez zira bakarrik ustel. Bainan ustel eta zikin... Izenez hala zira, eta izanez, oraino beherago.

PRESIDENTA: Otoi jaunak errespeta-azue zuen kargua!

FRANTZIZ: *(Oihuz)* Jaunxkil txarra... Bihar berean ukanen dituzu bi gizon ene partez. Eta ikusiko dugu ean proposatuko dautzutelarik, enekin buruzburu aurkitzea, pentze batean, hamabortz metretan, errebolbera bedera eskuetan, ikusiko dugu ean oraiko fantesiak beti zurekin izanen dituzun.

CASTILLO: Ez nau zu bezalako gizon batek izitzen, ez eta zu bezalako hamarrek ere... Bainan ba, zuk proposatzen dautazun joko xoro hartan, ene buruaren zikintzeak.

PRESIDENTA: *(Finki)* Denak xutik! Eta, barne hau huts dezagun... Ez dira hauk bake moldeak! Ahalge naiz, bake egiterat etorri-eta, huntaratu baigira. Ene sententzia emanen dautzuet geroxago. *(Oro xutitzen dira... Batzu tira-ala jalitzen deus errai gabe... Bertze batzu elgarri desafioka)*

RAMONA: *(Jaliz)* Nik biziki maite ditinat hola gizonak kalapitan ari, entzutea.

DOLOREZ: Ba... Nik ere ez ditinat sekulan huts egiten misionetako konferentzak.

RAMONA: Hau haatik pollitago zunan. *(Alta Xuri baka-rrik gelditzen da... Ostatuko senar-emazteak sartzen dira, jatsarekin)*

AITA XURI: Heldu zaretea gezurteia garbitzerat...? Garbi-azue, garbi... Badu beharra!

OSTALERA: Erran dute naski hanitz gezur?

AITA XURI: Erran dutea bertzerik?

OSTALERA: Bizkitartean, makurren zuzentzerat bil-duak ziren hunarat!

AITA XURI: Bai, politikeroen zuzena eta akerraren adarra berdin zuzen. *(Jalitzen da)*

OSTALERTSA: Ean, idek dezagun radioa entzuteko zer dioten bilkura huntaz! *(Idikitzen du. Boz erkats bat)*

RADIOA: DURANTE UNA SESION AGITADISIMA, ¿CON DESAFIOS A DUELOS? HAN SIDO TENIDOS PROPOSITOS INNOBLES CONTRA NUESTRA PATRIA POR EL DELEGADO FRANCES. NUESTRO DELEGADO MUY DIGNO HA PROTESTADO ENERGICAMENTE. QUE SEPAN DEL OTRO LADO DE LA FRONTERA...! QUIEN ATENTE A NUESTRA DIGNIDAD Y A NUESTRA INTEGRIDAD ENCONTRARA EN NUESTRA TIERRA DEFENSORES RESUELTOS Y DISPUESTOS A DAR SU SANGRE NO PASARAN... ¡NO PASARAN!

OSTALERTSA: Ean orai zer dion bertze radioak!

OSTALERA: Ez duzu radio idekitze beharrik... Hor duzu kazeta saltzailea.

KAZETA SALTZAILEA: (*Oihuz kanpoan*) Lisez le Journal, dernière heure... La France au bord de la guerre... Eches de la Commission pour la paix... Les délégués se provoquent en duel! Mobilisation imminente... Achetez le Journal! (*Leihotik pasatzen du bere kazeta*)

OSTALERTSA: (*Kazeta eskuan*) Zer zozokeriak...! Baina zer zozokeriak...! Radioan bezenbat kazetetan.

OSTALERA: Ba, ba... Edariarekin mozkortzen bezain segur, jendeak zozotzen dituzte kazeta horiekin ere.

OSTALERTSA: Eta, bertze abokat horrek...! Hauxe ba zer molde astoak dituen bere errebolber desafioekin!

OSTALERA: Bo, zer nahuzu...! Buru bero bat... Jainkoa ala deubrua berdin zerbitzatzeko prest, bere buruaz burrunba poxi bat jaliarazten badu!

OSTALERTSA: On, ez gira bakearen bezperan, holako gizon eta holako moldekin!

OSTALERA: Gizonaren estimu eta errespeturik gabe, bakerik ez...! Eta guk, hek eskas!

OIHALA

HIRUGARREN GERTALDIA

Taula-gaina:

Lehen gertaldiko bera... Muga haga sahetserat kendua da... Bi lore buketa handi ageri dira, bi eskualdetarik, guarden egon tokian... «Policía Aduana»-ren orde, izkiriatura da: «Denek bat». Eta, «Police Douanes»-en orde: «Bakotxa bere».

AITA XURI: (*Lore buketen artatzen ari*) Ba, ba, berriz ere hemen gira... Oroitzapen txarreko toki hau, pentsatzen dut ene baitan, behar dudala apaindu... Ho, ene lore pollitak...! Denak diferenteak eta bizkitartean, denek betan buketa eder bat egiten. Hola gira mundu huntako populuak... Denak diferentak, bainan denek bat egin behar ginuke, buketa lore hau bezala. Hortakotz, kontent naiz muga hau kendua baita, eta nihaurrek hor izkirioz ezarria dut nola behar luketen lurreko populuak: Denek bat eta bakotxa bere. (*Peyo agertzen da bere xirula sakelatik ageri*)

Hor zirea, Peyo...! Trebesatzen ahal duzu deskantsuan muga... Ez da gehiago mugarik, ez eta gizon armatu, heien zaintzalerik... Ez da goizegi konprenitu baitute buruzagi zonbaitek bederen, hobe direla populuak estekatu amodio lokarriz, beldur lokarriz baino... *(Mayi agertzen da)*

PEYO: *(Irriño batekin)* Hortan, Mayi eta ni, arras ados gira zurekin.

MAYI: Nola erran duzu ba hori, aita misionesta?

AITA XURI: Nioen, jendeen artean ez dela hagarik behar, bainan lili hesiak...

MAYI: Arrazoin duzu, aita misionesta. *(Mayi eta Peyo, ezin goxokiago eleketan dagotzi... Aita Xuri ari da buketa artatzen)*

AITA XURI: Ha, so egizue, bertze loreen artean, lore berezi huni...! Eskualdun lorea... Nik gehienik maite dudana... Zazpi koloretakoa da, eta zazpiek bat egiten dute. *(Sahets behatze batez, ikusten ditu gazteak soberaxko hurbil direla bat bertzearenganik)*

PEYO: Nola erraiten zinuen ba, aita misionesta...? Zazpi koloretako lorea dela gurea... Haatik guti ageri da buketan... Bertze lore handi batzuk sobera itzal egiten diote.

AITA XURI: Ba... Zorigaitzez ba... Bainan guri da gure lore pollita ez sobera uztea itzaltzerat. *(Berritz ere ikusten ditu gazteak sobera hurbilduak)*

PEYO: Kasu, aita misionesta...! Beldur naiz ez ote zaituen zu galduko mugaren amodio eskasiak...

AITA XURI: *(Irriño batekin)* Eta zuek, kasu ez ote zauzten galduko amodioaren muga eskasiak.

PEYO: Ez ahal zinuke berritz mugarik ezarri nahi gu bien artean?

AITA XURI: Ez, ez... Bainan, zihaurrek zuen mugak hartzea nuke nahi... *(Loreeri mintzo da bakarrik)* Ene lore maiteak... Denak Jainko berarenak zarete... Gora, lore eta fruitu zaitezte, batek bertzea irentsi gabe... Bada berdin toki denentzat... Lurra Jainkoaren baratzea da... Baratze hartan izan zaitezte loretei... Ez denak lore berdin, bainan denak berdin lore. *(Dolorez eta Ramona agertzen dira)*

DOLOREZ: Jes...! Zer ari zare hola, aita misionesta...? Gazte horientzat, aldareko lore preparatzen?

AITA XURI: Ba, etorriko ahal da hortako tenorea ere. Bainan, mementokotz, gerla toki huntarik, nahi nuke bake leku bat muntatu... Arma eta herra-

ren orde, hemen alha daitela haur jostetak, gazteen alegrantziak, adinekoen goxotasunak.

DOLOREZ: Eta gu, zein motetan ematen gaituzu?

AITA XURI: Inguruko arboletan badira errexinolet eta papo gorriak... Badira ere biligarro, uzkinazo eta pikak... Hor ikus zointarik zareten...!

RAMONA: Ba, beleak ere badire gero, aita misionesta!

DOLOREZ: Utzan, utzan bere gisa... Ez dun hori heta-rik! Arropez, belea baino mendi usoa din hobeki iduri.

AITA XURI: Milesker, ez bainauzu halere buzokari konparatzen.

DOLOREZ: Eta, aita misionesta, zaintzen dituzu bederen pixka bat gazte hoik...? Ez dakit ez ote zaizkitzun kontrabandan ari.

AITA XURI: Ni baino guarda abilago bat bada, horien zain dagona... Oro ikusten dituen guarda...

RAMONA: Oi, ei, ai... Zer dire jende itsusi hauk hunar-
rat heldu (*Agertzen dira, lehen gertaldiko Afri-
kano beilariak*).

AITA XURI: Itsusiak...? Zerendako itsusiak?

RAMONA: Jes...! Zonbaiten buruek iduri dute gure ximiniako kedarra...

AITA XURI: Ba, eta horientzat berritz, gure buruek, baratxuri xixtorra! *(Afrikanoei mintzo)* Hurbil zaitetze, hurbil, jende onak!

RAMONA: Jes! Nola ez duten pentsatzen jende beltzen xuritzeko erremedioa!

AITA XURI: Zertako ez, xurien belztekoa? *(Aita eta Afrikanoei elgar salutatzeko dute, loriatuak... Aljeriano gizonarekin, hango jendeen moldean... Gizon beltzarekin, sudurrak elgarri torratuz)*

RAMONA: *(Irriz)* Hau bitxikeria...! Zer duzue...? Sudurrarekin musu ematen...?

AITA XURI: Zer erran nahi du, hori bada horien agurtzeko moldea...? Ez ote du gurea balio?

RAMONA: Fu zikiña...! Pekada darian direlarik, ez bide da goxo!

AITA XURI: Uste baduzu goxoago dela gure moldean ezpainak bustiak edo gorriz tintatuak direlarik...!

DOLOREZ: No, eman hori zarpan eta mokanesa gaintetik... Ongi errana dun segurki: Apezak azken hitza bere...!

AITA XURI: Hala da... Ez da azalari behatu behar, bainan barneko sentimendueri... *(Lehen gertaldiko*

lau mutikoak agertzen dira eta harrituak dagozi Afrikanokeri so) Hurbil eginak... Larruz bakarrik diferentak. (Ari da solasean Afrikarrekin) Diote loriatuak direla Lurdeko bidaiaz, eta harrituak muga hau hola idekia aurkituz, eta ni, guarda-koaren egiten...

DOLOREZ: Aita misionesta, galde-ozute ean kantatu duten Lurden. *(Ramonari)* Gaitzak ditun kantariak eta dantzariak ere ba, larru beltzeko jendeak...

AITA XURI: *(Apur bat Afrikanokerin solasean egonik)* Ba, gogotik emanen omen dute beren kanta eta dantzatik, zueri plazer egiteko...

DOLOREZ: Ha, milesker segurki... Zer jende xarman-tak... *(Afrikanoker ematen dute beren dantza eta kantutik. Denek esku zartak jotzen diozkate)*

AITA XURI: *(Berritz ere solasean egonik Afrikanokerin)* Orai, hauk galdatzen dute guk bertze hanbertze egin dezagun...

DOLOREZ: Guk, zer nahi duzu monta dezagun...

AITA XURI: Zuek biek badakizue fandangotan?

DOLOREZ: Ba, gure adinean...!

AITA XURI: Berdin du... Guk emanen dugu musika. Ale Peyo, jo xirula... Eta zuek, haurrak eman airea

enekin. (*Aita eta hurrek kantatzen dute: «Esan dut, esanen, et'esango». Peyok xirula joz... Bi emaztek ematen dituzte fandango eta «Arin arin»*)

AFRIKANOAK: (*Dantza bururatzean, beren zoriona erakusten dute, oihuz eta izterrak eskuz joz*)

AITA XURI: Oihu eta jestu horiek eman nahi dute: Kontent direla eta milesker...!

DOLOREZ: Hobe, hobe... Gu ere arras kontent gare... Jadanik haur afrikano eta eskualdunak, nahastekan, hasiak dira jostetan muga hagarekin... Ari dira gorabeheraka (*à la bascule*).

RAMONA: Hoik laster konprenitu dutela elgar!

AITA XURI: Ba, izpiritu garbien artean, elgar konprenitzea errez da... Horiek bezala behar ginuke handiek ere... Ez da hurrek pentsatua, handiek, gure artean, ezarri muga hau... (*Haurreri mintzo*) Hola, haur maiteak!!! Beti, denekin izan zaitzte adixkide...! Atxik bakotxak zuen usaia, mintzaira eta moldeak...! Gureak gure...! Bainan «denek bat» hemen izkiriatu dudan bezala... (*Brastakoan, sartzen dira, eskualde batetik: Franziz, Brigadiera eta hiru guarda frantsesak. Bertze eskualdetik: Castillo, Kabo, Ixidro eta*

bertze bi guarda espainol. Apur baten buruan, agertzen dira ere: President eta sekretario...)

BRIGADIERA: *(Orroaz)* Zer dira hemen...? Ihauteriak hei! Hau dea mugaren errespetua... Bainan, bainan, nun da muga...? Fuera hemendik butxorro ergelak...!

KABO: Hemendik ere ba... Kanporat...! Zikinkeriak...!

AITA XURI: *(Afrikanoeri jestu egiten diote, urrun ditzeten laster. Bazterrerat mintzo)* Ha, hobeko dugu urruntzea bakotxa gure alde... Armadun basek ez dezakete jasan bakezko jendea... *(Aintzinean har zirenak, denak jalitzen dira)*

RAMONA: *(Jaliz)* Goazen hemendik, Dolorez... Gure oilarreri aztaparrak berritz ere haunditu zaizkoten...

BRIGADIERA: *(Muga haga bere lekuan ezarriz)* Bego hor muga, lehen bezala... Eta gauden bakotxa gure eskualdean... Gu hemen, eta zuek hor, ustelak!

KABO: Muga hau ez da hola lehengo tokian...! Hamar zentimetra segurik ebasten dituzu gure lurretik.

BRIGADIERA: Zer ebasten...? Zer uste duzue, zuen motatik girela, ohointzari lotzeko?

CASTILLO: Jaun Presidenta... Galdetzen dut muga haga, lehengo leku berean ezarria izan dadien.

KABO: Huna lehengo hatzak... Eni trebes bat lur bederen ebasten dute, muga haga orai den bezala utziz.

FRANTZIZ: Ene gobernuaren izenean, galdetzen dut, Jaun Presidenta, lur izartzaile gizonak deituak izan ditene, haga hori, lehengo tokian ezartzeko.

PRESIDENTA: (*Izartuz*) Ez anal zarete kalapitan ariko, bi zentimetra lurrengatik.

FRANTZIZ: Biga eta hamar, muga muga da, Jaun Presidenta...

PRESIDENTA: Lurra harrotua da eta lehengo marra ez da garbiki ageri... Zuen auzi-bide diren bi zentimetra horiek partituko ditugu erdizka... Ukanen duzue bakoetak zentimetra bedera lur.

CASTILLO: Nik ez dut holakorik onartzen, eta, orai beretik, ene gobernuaren izenean, gertakari huntaz auzi bat idekia izan dadien, galdetzen dut.

FRANTZIZ: Nik ere, bertze hainbertze galdetzen dut.

PRESIDENTA: (*Bizi-bizia*) Nahi duzuen bezala...! Agian ni harro jujatzale hoberik aurkituko duzue... Ene aldetik, iduritzen zaut egin-ahal guziak obratu

ditudala bakearen beiratzeko... On dagizuela, nahaskeria saltsatu nahi baduzue.

FRANTZIZ: Ez gira bazter nahas-gura, bainan zuzentazuna galdatzen dugu...

CASTILLO: Bakea ez ditake finka, zimenduz ahul diren jujamenduen gainean.

PRESIDENTA: *(Moz motza)* Har-azkitzue beraz bertze jujatzale batzu... Agian, gertatuko zauzkitzue ni baino hobek... Agur jaunak! *(Jalitzen da. Franziz eta Castillo ez dira kontent. Sekretarioa ere jalitzen da)*

KABO: *(Bere guarderi)* Zuek, jin ene bulegorat...

BRIGADIERA: *(Bere guarderi)* Zuek ere, enerat. *(Castillo eta Franziz gelditzen dira bakarrik)*

FRANTZIZ: *(Ahapetik Castillori)* Bakarrik baigira, noiz artio behar dugu auzi hau iraurarazi?

CASTILLO: Ahal bezen luzaz, ukana dut manua...

FRANTZIZ: Nik ere berdin... Dudarik gabe, bi gobernuak elgar adituak dira.

CASTILLO: Hobe, hobe guretzat...

FRANTZIZ: Ontsa saristatua zirea bederen...?

CASTILLO: Ba, ontsa... Zu ere ba...?

FRANTZIZ: Ba, arras ontsa.

CASTILLO: Sarri bazkalduko duguia buruz buru...?

FRANTZIZ: Ba berdin... Haatik, ez jendeen aintzi-
nean...

CASTILLO: Fida zaite eni... Ezagutzen dut hemendik
hurbil, janleku bat hauta, xoko gorde batean...

FRANTZIZ: Be, segituko zaitut... Eta orai, kasu...! Ez
dezagun elgar gal. (*Sartzen dira Kabo eta bere
hiru guardak. Franziz jalitzen da... Kabok zere-
moniak galdatzen duen gisan guardak lerroka-
tzen ditu*)

KABO: Makurbide izigarri hauien ondotik, berritz gure
muga haga landatu dugun egun berean, gober-
nuak nahi izan ditu eskerrak bihurtu bere muga-
zain leial bati... Horra zertako, ohorezko medai-
la hau igorri daukun, berehala, huntan apain
dezagun gure adixkide bipil bertutedunaren
papoa.

CASTILLO: (*Mespresioki urratzen du «Denek bat» izki-
ria eta mintzo da suharki*) Lurrak dirauno,
ezkurak haitzpean baino segurago, ura erreke-
tan kausitzen den bezala, beti kausituko dira
mugak eta heien zaintzale zintzoak, erresumeta-
tako lurren ingurutan... Xorokeria, krima eta
gauza sakratu baten ostikatzea da, muga hoieri
jazartzea... Holako lan hits bati bizkitartean lotu

dira, satanek berak bere suaz beroturik, gizon zentzu eta bihotz gabe batzu... Uruski, hor zauden xut eta erne, beti prest beren eginbidearen betetzeko, mugazain zintzo, mugazain bertute-dun batzu... Heieri esker dugu salbatua gure muga, salbatua gure erresuma. Nazione guzia, adixkide Ixidro, zuri errespetuki so dago memento huntan... Nazione guziaren izenean, ohore eta milesker...

KABO: (*Guardak manatuz*) Guardak, zangoak tink. (*Emaiten dira «au garde-à-vous». Kabok dekoratzen du Ixidro*) Gobernuaren izenean, ohorezko medaila hau papoan ezartzen dautzut...

CASTILLO: Eta orai, oroitz mugen zaintzeko beren odola ixuri duten hoinbertze gizonez, gauden minuta bat ixilik. (*Dolorez eta Ramona agertzen dira, frantses eskualdean*)

DOLOREZ: Jes...! Ixil zagotzin gizon horiek...! Zer ari ditun, goizeko otoitzaren egiten...

KABO: (*Erotua*) Zuek, ixilik!

RAMONA: Errak to! Ez gaituk gero hire lurretan, hik gu manatzeko... Muga nahi huen... Orai hor duk...! Errespeta zak bon.

CASTILLO: (*Kabori buruz*) Xxt...! Alo, zintzoki ar gaiten... Has dezagun berritz gure minuta.

RAMONA: (*Kabori*) Ez dik ez balio kara kartsu hori hartzea... Hire sentimenduak berdin gurekin dituk, eta ez hilekin...

CASTILLO: Urrun gaiten hemendik...

KABO: Ba, hoberenik... Bertzenaz garbi bainetzake atso horiek... Goazen denak bulegorat, medaila horren bustitzerat... (*Jalitzen dira*)

DOLOREZ: (*Ramonari*) Erran no, medaila hortan guk ere badiñagu gero partea... Oilarrak guk eman gintinan saski azpian.

RAMONA: Segurki ale, eta hori adituko diton muturre-rat jaun horiek, ez bagaitizten utzi nahi pasatze-rat ondoko egunetan.

DOLOREZ: Ator no kanporat... Bertzeak heldu ditun... (*Sartzen dira Franziz, Brigadier, Popol, Anton eta bertze guarda bat... Oixtian kabok bezala, Brigadierek guardak lerrokatzen eta «zangoak tink» manatzen ditu*)

FRANTZIZ: (*Urratzen du «Bakotxa bere» izkirioa eta mintzo da kartsuki*) Horra muga...! Mugaren bertzaldea, bertze mundu bat... Hemen, libertearen eremuak, hor esklabo tokia... Hemen,

jende argitua, hor jende gibelatua. Hemen jendetasuna, hor basakeria. Muga-zaina, zure kargua da gure lur garbien beiratzea, bertzaldeko belar tzar pozoinduetarik... Kargu baliosa eta ohoragarria...! Honi ontsa betez, hemengo guziak gaituzu laguntzen eta salbatzen... Berrikitan, etsai errebesak nahi izan du, jukutriaz aztapar-pean bildu... Zorionez, hor zagon guarda, tente, erne... Kontra egin dio etsaiari, gogorki, armez bezenbat besoz eta zangoz... Borroka izigarri baten ondotik etsaiak gibel egin du... Muga salbatua izan da... Eta, mugaren zaintzale bipila, xuxen da, izan dadila, penen ondotik ohoretan... Bai, adixkide maitea, errespetu, ohore eta milesker zuri, erresuma guziaren ize-nean. (*Ramona eta Dolorez agertzen dira Espainiako aldetik*)

BRIGADIERA: (*Popol dekoratuz*) Gobernuaren izenean, ohorezko medalla hau, papoan ezartzen dautzut.

RAMONA: (*Irriz*) To, nork nori!

FRANTZIZ: (*Orroaz*) Ixilik...!

RAMONA: Errak to, mihi luze hi, mana-zak hire lurretan, eta muga gaindi solasen arrabotsa ez pasa-

tzerat uzteko, aski abila balin bahaiz, aski dituk hortako sareak hedatzea.

FRANTZIZ: Gauden minuta bat ixilik gure muga-zain hilen ohoratzeko.

RAMONA: Ba, egoten ahal zaitezte bertze minuta bat ere ixilik zuen buruez urrikaltzeko. *(Dolorezi)* Hala dun-eta... Zer-nahi ziminokeria pentsatzen diten orai hilen ohoratzeko!

BRIGADIERA: *(Minutaren ondotik, orroaz)* Eta zuek, hobe duzue ez ene esku-perat erori.

RAMONA: Errak to, kasu emak hihuri... Hor ditiagu gero saskiak, bertze aldi batetako ere!

BRIGADIERA: *(Popoli)* Zuk har-azu guardia... *(Bertzeri)* Gu, goazen hemendik! *(Jalitzen dira)*

DOLOREZ: *(Ramonari)* Erran no, hobe dinagu, guk ere, hemendik urrundu. *(Jalitzen dira)*

IXIDRO: *(Agertzen da, rnedailatua, guardiaren hartzerat)* Errak to, Popol, zen ohoreak ditugun!

POPOL: Ukanak hartze baginitu, ba...!

IXIDRO: Nik uste, hik baino merezimendu gehiago diat... Ene medaila hirea baino zabalagoa duk segurik...

POPOL: Ba, horko ofizialeak, jende gibelatuak baitira, ez bide zakitean medailaren egiteko, izarien hartzen.

IXIDRO: Hobeko diagu medaila hau sakelan ibili. Ber-
tzenaz, trufatuko gaitiztek...

POPOL: Ba, jadanik, entzuna diat ene bataio berria:
Asto loratua...

IXIDRO: To, Aita Xuri hor diagu... Ean horrek zer dion...
Errazu, aita misionesta, zuk baitakizu medaila
hauien berri, ez zautzia ahalgegarri, guk hauk
ukaitea?

AITA XURI: Ez zaitela kexa... Ehunka badira medailatu-
tan, zuek ohore gutiago merezi dutenik... Zuek
bederen ez dituzue medailak erosi edo krima
sari ukan!

IXIDRO: Eta muga hau, berritz ere, berdin berdina
hemen... Ez bide zira hortaz kontent, aita misio-
nesta...

AITA XURI: Nor hala izanen da...? Ilargirat joaiteko
zalapartaka tresnatzen ari dira. Eta, ordu
berean, gure lehen auzorat joaiteko bideak tra-
betan ezartzen dituzte.

IXIDRO: Eta, zer egin?

AITA XURI: Ba, zer egin...! Izpirituak behar liezke lehenik gisa hartarat moldatu... Erresumen arteko estimua, amodioa hedatu-arau, mugak berak eroriko liezke.

IXIDRO: Ba, noiz ordea?

AITA XURI: Noiz, noiz...! Uste nuen oraikotz izanen zela muga hunen kentzea... Uste nuen, mugak kendurik, erresuma multzo batek batasun eginen zutela... Batasun hartan bertze asko populu- luen sahetsean, ikusten nuen eskualdun jendea, pollit eta airos. Bainan ez... Handiek ez dute onartzen ttipiak bere gain bizi daiten... Ez zaiote aski gu berekin izaitea... Beretu nahi gaituzte... Halere ez dut esperantza galtzen... (*«Denek bat» eta «Bakotxa bere» izkirioak lurretik bildurik, zabaltzen ditu*) Paper hautako galdoa, oraikoan eta berritz ere, arima gaxteek, zimurdikaturik, lurrerat aurtiki dute... Bainan etorriko da eguna, paper hauk, ohorezko tokietan, gora ezarriak ikusiko baititugu... Ez, ez dut esperantza galtzen... Lurreko gidariek noizpait lañoturik, muntatu nahiko dutela mundu berri bat, zointan populu guziek eginen baitute: «Bakotxa bere» eta «Denek bat».

OIHALA